

GEU GASTEIZ

GEU ELKARTEAREN BABESAREKIN

Kalea artistentzat

Elkarrizketak

Mikel Valverde
Damian Muñoz
Joseba Oria

Hitz egin ahal izatetik hitz egitera

APELINO URKETOXO / GEU ELKARTEKO PATZORDEKIDEA

Hiru urteko haurren eskolarako matrikulazio datuak pozgarriak dira euskaltzaleontzat, gure hizkuntzak jadanik prestigio maila bat erdietsia duen seinale diren aldetik. 'Etorkizuna euskaraz dator' aldarrikapena ahotan harturik portzentaia biribilak erabiltzen ditugu euskaraz hitzetik hortzera jardungo diren belaunaldi gazte horien zain gelditzen garen bitartean. Irudipena daukat, ordea, ez ote garen neurritz kanpo liluratzen. Izan ere, hizkuntza bat ikastea, gramatika batez jabetzea baino areago, hizkuntz komunitate batean murgiltzea da geure ustez, eta Gasteizko euskaldunon komunitatea eratzea eginkizun dugu.

Udazkenean hasiko dira hiru urteko haur horiek euskaraz ikasten; laster mintzatzeko gai ere badira. Kontu egin dezagun denboran jauzi bat egin dugula aurrera, eta hogeita hamar urteko gizaseme-alaba gisa irudika ditzagun euren zereginetan. Adiskide eta lagun gehien-gehienek euskaraz dakite; gainera, eurek baino gazteagoak diren gazteiztarren artean nekez aurkitzen dira erdaldun hutsak. Baina..., nola hitz egiten dute lagunartean? Eta bikotearekin? Seme-alabei zein hizkuntzaz mintzatzen zaizkie? Euskarazko hedabideetara jotzen al dute informazio-beharra asetzeko? Irakurtzen dituzten eleberrien artean euskarazkorik antzematen al diezu? Azken batean, euskaldunak al dira? Zenbat? Ba al da euskaraz bizi nahi duenik?

Galderon erantzunak, hein handi batean, behintzat, geure esku daudela esango nuke; hau da, euskaltzaleoi dagokigu orain ereitea (helburuak markatu, estrategiak erabaki, proiektuak burutu) etorkizuna euskaraz etorriko bada.

Horrenbestez, euskaraz hitz egin ahal izatetik hitz egin

nahi izatera dagoen 'hutsartea' betetzea zein garrantzizkoa den ohartu beharra daukagu. Horrela, komunikatu ahal izateko euskara nahitaezkoa ez denez -denok baitakigu erdara- motibazioa dugu giltzarria, eta norberaren 'euskalduna izateko borondateetik' abiatzen da hizkuntza-aren normalkuntzarako dinamika. Ondorioz, hizkuntza jakiteak ez baitu ziurtatzen erabilera, euskaraz ikasten duten haurrak euskaldunak izan daitezen motibazioa gogotik landu behar litzateke, eta euskal esparruak eskaini, non euskaraz bizitzea erakargarri ezezik sinigarri ere gauzatuko zaien.

GEU gasteiztar euskaldunon komunitatea egituratzeko helburuz sortu zen, hain zuzen ere, eta horrexetarako bideratuta daude elkartearen ahaleginik behinenak. Horra hilabetekari kutun hau; proiektua inoiz baino sendoago dagoela, gizarteratzeko garaia iritsi zaiolakoan gaude. Era berean, euskalgintzan duen funtzioa modu eraginkorrago batez nola bete lezakeen aztertzeke premia somatzen dugu. EUSKARRI ere lehenasuneko gaia dugu elkartearen, eta laster funtsezkotzat jotzen den egituraketa lan bati ekin behar zaio. Hainbeste lagunengan halako ilusioa piztu duen egitasmo honek merezi du saiatzea, zinez. Azkenik elkarteak kideen parte hartzea areagotzeko asmoz, barne antolaketa berri baterako proposamena jorratzen ari gara Batzorde Eragilean. Batzarrean erabaki bezala, haren berri eman eta elkartearen jardun orokorra zuzpertzearren bilera zabal baterako deituko zaituztegu bazkideok urri aldean.

Beraz, gure helburuaren tamainako tresnak sortzeko eta proiektuak lantzeko erronkari eutsi diezaiogun, GEU, behintzat, ez gara besoak antxumatuta geldituko.

Naturaren isladak



GEU GASIFIZ, Gasleizko
Eusballunon hilaletaria

ERREDAKZIOA:
Pedro Asua, 2 - 3.a
Telefonoa eta Faxa: 22 21 53

ZUZENDARIA:
Estibis Erenas Glez. de Zarate.

ERREDAKZIOBURUA:
Asier Dz. de Karlamo.

ERREDAKZIOA:
Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz
de Mendibil, Txabi Arnal-Gil, Raul
Saez de Buruaga, Itziar Uriarte.

ARGAZMAK:
Eidera Sanz.

MAKETA:
Galzazain Argitarapenak
Telefonoa: 970 40 18 46

INFGRAFIA:
Alex Badillo.

KOMIKIA:
Itziar Sarasola

NATURAREN ISLADAK:
Itziar Zorrakoa.

KOLABORATZAILEAK:
Eduarne Begiristain, Elbira Elejalde,
Imanol Barutia, Jon Leunda, Itziar
Kastresana.

PUBLIZITATEA:
Karlitos Fdez. de Beñe.

BANAKETA ARDURADUNA:
Txipi Ormaetxea.

INDEKIMATZIA:
Gerlu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

ALE KODURUA:
2.500

LG: VI-582/92
ISSN: 1133-0988
Franko Itundua 48/27 zenb.

ALDIZKARI HAU PAPER
ECOLOGIKO EGINA DAGO

Geu Gasleiz hilaletariak
ez du bere gain hartzen
bertan adierazitatearen erantzukizunik.

aurkibidea

Mina dantza erakustaldia. Poesia dan-
tza bihur daitekeelako.

DANTZA



ERREPORTAIA

Polemika
guztien gainetik
justizia
euskaldundu
nahian hainbat
ekimen burutzen
ari dira



iritziak

30 Imanol Barrutia

Dirua galgarri

33 Elbira Elejalde

Filmik-film, kontu-kontari II.

34 Eduarne Begiristain

Gure hitzetako sexismoa.

laburrak

6 Euskara

Euskara, Añanako gatzia.

8 Kultura

Musiketxea, klasikoen gune.

9 Besteak

Eneko Llanos, Espainiako txapeldu.

elkarrizketak

16 Mikel Valverde.

Komikilari eta marrazkilaria.

22 Damian Muñoz

Poesia dantza bihurtuta.

kirolak

18 Golf

Aiton-amonek ikusiko balute!

19 Botepronton:

Luis Aldazabal, Real Madrid-zalea

erreportaiak

14 Hizkuntza

Justizia ere euskaldunduz.

kultura

20 Jazzaldia

Vitoria-Jazteiz

24 Musika

Los Padriños.

26 Gaurkoak eta betikoak:

RIP eta Gozategi

27 Agenda

Uztailako kultur ekitaldien zerrenda.

ohikoak

4 Santa Barbara azoka

Euskararen termometroa

28 Piti-pata

32 Komikia



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak
diruz lagunduriko aldizkaria

posta



Kopenhage:

Kaixo guztioi,

Eskerrak eman nahi dizuet
Geu gasteiz aldizkaria hone-
raino bidaltzeagatik. Oso poz-
garria da Gasteizko gertakizu-
nen berri euskaraz jasotzea
Europako ertz honetan.

Besarkada bero bat.

Edu

*eskuin-atzekaldean dauden
etxe marroi batean bizi naiz.

santa barbarako azoka

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postazi:
pedro asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53

SALTZEN DUT

Larruzko kazadora bat sal-
tzen dut. Heavy edo punky
batentzako aukerakoa. Talla:
40, berri-berria dago,
Janzteia nahi baduzu deitu

945 13 27 58 Espe
(9etatik 10 etara)

Vespa 200 - Iris salgai.
80.000 pezetan bakarrik
945 14 54 90 Ihigo

6 katakume salgai, 1000
pezetan bakoitza. Aita zein
ama kaletarrak
945 14 54 90

DEITZEN DIZUT

Ohiko osasun sistemam ase-
tzen ez bazaituzte, zatoz
Sumendi osasunaren auto-
gestioaren aldeko elkartera

945 22 65 03

Ez hago bakarrik! Hator Gay-
tasunara. Informazioa, hitzal-
diak eta eztabaidak, psikolo-
gi, sexologi eta lege aholku-
laritza... Bilerak asteazkenero.

945 25 77 66

Gasteizko Esperanto Elkartea
Hizkuntza txikiak maite ditu-
gulako, esperantoz mintza-
tzen gara.

Zapatari kalea, 29

Abuztua Zumaiari pasa nahi
baduzu... pisu txikia aloka-
tzen dut. Ongi kokatua, era-
bat hornitua. 5. solairua, igo-
gailunik gabe.

943 86 18 15 Jose Fran

Irailetik aurrera, egun osoz,
kangurc euskalduna behar
dut.

945 17 50 46

Ikusten duzue pixkanaka
txoko hau informazioz bete-
tzen goaz. Oraindik, ordea,
zuen laguntza behar dugu
orrialde hau guztiontzako
baliagarria izan dadin.

Ez dago mugarik, zeuek nahi
duzuen guztiak du lekua he-
men. Saldu edota erosi nahi
duzuenak, agurrak, deiak,
zoriondu nahi dituzuen lagu-
nak, eta beste edozein mezu
lerro hauetan ezarri nahi
baduzue, bidali honako hel-
bide edo fax honetara:

Geu Gasteiz aldizkaria.
Pedro Asua kalea, 2. 3.a
faxa: 22 21 53

PREMIAZKO TELEFONOAK

S.O.S. DEIAK:	088	AUTOBUS GELTOKIA:	25 84 00
UDALTAINGOA:	092	RENFE:	23 02 02
INFORMAZIOA:	010	AIREPORTUA:	16 35 91
SUHILTAILEAK:	16 11 11	ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:	28 20 00
GURUTZE GORRIA:	22 22 22	HIRI-BABESA:	16 11 61
D.Y.A.:	28 10 20	UDALETXEA:	16 11 00
ERIEETAKO URGENTZIAK:	24 44 44	FORU ALDUNDIA:	18 18 18

hozkaikuan

Euskarazko fimeak ikustea ez
ezik zine-aretoetan euskara ikustea
ere ezinezkoa da maiz. Guridi zine-
mak adibide ditugu. Euskaraz ez
dakitela argudiatu ziguten eta guk
bideak badirela erantzuten diegu. Herri Ardularitzaren Euskal Erakunde-
ak (HAE) duda-muda zerbitzua du, kartelak edo bestelakoak euskaratu
aurretik oso baliagarria izan daitekeena.

faxa: 945 18 76 03. E-mail: webivap@ivap.es

ENTRADA MINUSVALIDOS
MINSBILIATUEN SARRERA



Aldizkari hau sortu zenetik inoiz aurkitu ez
dugun euskaraz egoki itzulirik egon ez ezik Gas-
teizko euskarazko kale izendegi berria ere daka-
rren aurreneko hiriko plano eta gida da. Honako
hiru lekuetan jaso daiteke doan:

- Udalaren Turismo Bulegoak (Europa Gizarte
Etxea. 945 16 15 98 eta Dato kalean zabaldu
berri dutena).
- Eusko Jaurlaritzaren Turismo Bulegoa (Flori-
da Parkea z/g. 945 13 13 21).

sutondoa

Aire-aire / Asier Dz. de Karkamo



Azken hilabeteotan gureak
ez diren paisaiak gogorazi diz-
kidaten abioietako bat da iru-
dikoa. Honek pasat, baina
buztan-luzeko hegatzia bai-
tzen aseguru empresa
baten publizitate-mezua darama
ikusia al duzue zuek?

Esnatu bezain pronto ikusi
nuen lehenbizikoz nik eta,
zinez, Benidormen nengoela
uste izan nuen une batez.

Kostatu zitzaidan bai, Gas-
teizen nengoela jabetzea. Iru-
diko hegazkina, baina, gure
hiriturua, ogerleko batzuen truke, zerutik ezagutu nahi duenarentzat pro-
pio antolatut dituzten ibilbide horietako bat egiten ari zen. Ziur barnean
zihoana ni bezain aho-zabal geratu zela.

fotonotizia

hiriturua, ogerleko batzuen truke, zerutik ezagutu nahi duenarentzat pro-
pio antolatut dituzten ibilbide horietako bat egiten ari zen. Ziur barnean
zihoana ni bezain aho-zabal geratu zela.

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**

artisans lanak
lorategi eta barrualdeko-proiektuak
egiten ditugu

Errementari (HERRE) 38, behea tfnoa.: 25 25 03 01013



ALTZARIAK

Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobea

Aiztogile (KUTXI), 23



RAKARNE
ETAKO ANDREA

1.- Gauzak asko aldatzen zaizkit, eta normalean oporretara abiatzen naiz familiakoekin, jende gehienak egin ohi duen erara.

2.- Uda honetan ere oporretara joango naiz, hondartza aldera. Ziur aski Zarautza.

1.- Zer desberdintasun nabaritzen dituzu zure bizitzan uda eta oporrek iristean?

2.- Zer asmo daukazu aurtengo oporretan burutzeko?

HELDU DA UDA

Urtero bezala, aurten ere denborak aurrera egin du eta konturatzerako udaberria atzean utziz iritsi zaigu udara. Eta nola ez, udarekin batera hain gustukoak ditugun oporrak. Jendeak zein asmo eta amets dituen jakiteko asmoz jo genuen kalera, aisialdian orokorrean egiten diren ekintzen berri izateko



OSCAR TARRES
IBISATE

1.- Udaldian bidaiatzea dut atsegin. Oporretan lagunekin zein familiakoekin egoteko denbora libre gehiago izaten dut.

2.- Ingenieritzako proiektua egin beharra daukat eta enpresa batean praktikan izango naiz uda osoan.



ISIDORO NOVELLA
ETAKO ANDREA

1.- Tabernako jabea izanik aldaketa gutxi nabaritzen dut. Bezero gehiago egoten direla aitortu behar dut.

2.- Aurtengo oporraldian hamabostaldi bat pasako dut etxetik kanpo familiakoekin, hemendik gehiagi aldentu barik.



ISABEL COBO
ETAKO ANDREA

1.- Seme-alabek ikastolako klaseak amaitzen dituzte eta eguraldiak laguntzen badu, pizinetara joan ohi gara.

2.- Igerilekuetara ez ezik hondartzara ere joango gara. Hori bai, beti ere Kantauri itsasora, gure alaba txikiegia delako.



CLEMENTE VELASCO
IBISATE

1.- Jubilatua naizenez gero ez dut aldaketa handirik nabaritzen. Aldaketa bakarra familiakoek izan ohi dute.

2.- Atzerrira joaten naiz hamabostaldi bat, edota hiru zein lau astez urtearen arabera. Primeran dago kanpora bidaiatzea.



ITXASO SANCHEZ
IBISATE

1.- Ikasketak alde batera utzita familia eta lagunekin igarotzen dut nire denbora. Tarteka ere herrira joan ohi naiz.

2.- Aurten ohizkoa egiteaz aparte, ekintza on bat burutu nahi nuke. Apdema edo Once moduko elkarteetan.



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA

Euskara Añanako gatza

Gesaltza izan da Euskara Añan Mingainean (EAM) elkar-teak bere urteroko festa handia egiteko aukeratu duen egoitza. Añanako koadrilan euskara berpiztea helburu duen talde honek Oskorri eta Alaitz eta Maider deitu ditu irailaren 20an ospatuko den jaia itxeko. Egunean zehar, iaz Langraitzen eta duela bi urte Zuhatsu Koa-tangon gertatu bezala, hamaika ekitaldi izango dira, den-denak eskualdean euskararen suspertzea eragin asmoz.

Oraindik egitaraua erabat itxita ez dagoen arren, Gasteiztik 29 kilome-trora dagoen Gesaltza herrian hain-



Hauxe da Gesaltzako Festa iragartzeko EAMek aukeraturiko kartela

bat festa-gune antolatuko direla jakin izan dugu. Horietako bat, udal igerilekuek jasoko dutena; haurren-tzako jolasak, tailerrak, ipuin konta-lariaren eta bestelakoen gune izango da. Bertan ere kontzertuak burutuko dira, bazkalostean. Herriko plazan,

bestetik, artisau azoka izango da gozagai, Añanako produktuei propio zuzenduta. Euskal musika tradizio-nal leku berean izango du toki ere: trikitixak, txistulariak, txalapartariak, albokariak eta dantzariak, besteak beste, irailaren 20an Gesaltzan izan-go direnen adibide batzuk besterik ez dira.

Baina, nola ez, gatza izango da Fes-tako izar nagusia. Arabako hiri zaha-rrena denak bere jantzirik ederrenak jantziko ditu berpizte prozesuan bizi diren gesaltzatarren urrezko garaia-k gogorazteko. Horretarakoxe, EAMko-ek gatzagak inguratzen dituen men-dian zeharreko ibilbide ederra presta-tuko dute, tartean orain bi mila urte-tik aldaketarik gabe iraun duen gatza lortzeko lanaren nondik-norakoak erakutsiz.

Eskerrak eguraldi txarra izan zen!!!

Txiki geratuko baitzen, bestela, Araialdea. Izan ere, izugarriz-ko jendetza bildu zen bertan ekainaren 7an Arabako Ikasto-len Festa ospatu asmoz. Zeruak eten-gabe izutu egin baikintuen arren, milaka eta milaka eus-kaltzale gerturatu zen Armentia Ikastolakoek Araia eta Zalduondo artean antolatu ibilbi-dera. Orotara 55 eta 60 mila lagun inguru zenbatu zituzten anto-latzaileek, esan beza-la, eguraldi ederregi-rik egin ez batzuen ere.

Bestetik, ekainaren

7an eskuraturiko dirua 20 milioi pezeta ingurukoa izan zen. Ikastola-ko arduradunak pozik ageri ziren



zenbaki hau ezagutzerakoan eta las-ter, datorren urteari begira, Ikastolan ikasgela gehiago egokituko direla jakinarazi zuten, horixe baitzen aur-tengo Araba Euskaraz Festaren hel-buruetako bat.



Errentaren aitortpena Araban

Arabar gehienek gazteleraz egin zuten errentaren aitortpena; %98,79-k, hain zuzen ere. Zifra honek esan nahi digu 1.307 aitorten baino ez zirela euskaraz burutu; %1,21. Non zaudete euskaraz bizitzea aldarrikatzen duzuen euskaltzale eta euskaldun guztiak? Aukera emanda ere eguneroko eginbeharrekoetan euskara erabiltzen ez badugu, zer demontre oihukatzen dugu gero euskaldunon eskubideen inguruan? Pentsatzekoa da!!

Halako gauza txikiengatik ere bermatzen baita hizkuntza baten iraupena. Ez al zaigu maiz ahoa gehiegi irekitzen euskararen kontra eginiko zerbait salatu behar dugunean? Ba... oraingoan Geu Gasteiz Aldizkariari egokitzen zaio... Erne ibili, hortaz, euskaldun eta euskaltzale sentitzen zaren hori, datorren urteko errentaren aitortpenari heltzeko garaia iristen denean!

Estitxu Breñas, Geu Gasteizko zuzendaria

Txosnak, gezurrak eta abar

Aurten bai. Gasteizko alkateak eta Txosnen Batzordeak akordio batera heldu dira. Ez nator adosturiko elkar-hartze horrekin bat, baina positibotzat jotzen dut. Txosnen egitaraua hiriko festen egitarau ofizialean agertze-ari ez diot logikarik ikusten eta, bestetik ere, ez dut uste ere udal tasa eta zergak pagatu behar izateak barrikadaren alde jakin batera daudenen Instrukzio Gidan lekurik duenik. Baina halere, akordioa errespetatzen dut, txosnek irabazteko galtzeko baino gehiago duten iritzikoa bainaiz.

Gasteizko hiritarrak festak bakean nahi ditu eta gehiengoak ere denak festarako eskubideaz goza daitezen nahi du. Ez ordea PSEko Andres Sanchez zinegotzi jaunak (bere alderdi-kide franko txosnen eremua oso gustukoa dutela badakidan arren), aurten ere jaietako aurreneko txupinazoa jautiki baitu. Sanchez jauna hauteskude kanpianari ekin dio, buru-belarri gainera, eta gezurra esaten du Txosnen eremua gatazka eta iskanbilaren gune dela

esaten duenean. Sanchez jaunak, komunikabide batzuen laguntzaz (El Pais, El Mundo, Tele Vitoria...) txosnen aurkako kanpaina egin zuen iaz eta aurten gauza berari ekin dio. Sanchez jaunak eta aipaturiko komunikabideek ridikulorik handiena egin zuten iaz eta aurten ere bere horretan dihardute.

Iazko Andra Mari Zuriaren jaietan egunkari batean lan egitea egokitu zitzaidan eta, beste hainbat gauzez gain, noski, Txosnen eremua inolako gertakari negatiborik jaso ez zuen eremu bakarra bilakatu zela idatzi ahal izan nuen. Beste guztiek (Alde Zaharra, Dato, Salburua, Zezen Plaza, barrakak...) eguneroko jaien kronika beltza puzten lagundu zuten: lapurretak, liskarrak, haur baten heriotza...

Aurten ere, Sanchez jauna, txosnetan aurkituko nauzu, jai euskaldunagoak, ekologistagoak, feministagoak, erreibindikatioagoak eta askoz ere alaiago eta jatorragoak maite ditudalako.

Asier Pz. de Karkamo, erredakzio-burua

LIBURUDENDA BERRIA GASTEIZEN

Arriaga dugu hilaren lehenengo astean San Prudentzio kaleko 7 zenbakian zabalduko duten liburudenda berria, Arriaga paperdendaren ahizpa. Handia (790 bat m2) eta eskaintza anitz bertan: liburuak, diskak, bideoak, multimedia, eta sarreraren aldizkariaren eta prentsaren txokoa ere izango dugu. Euskal Kulturgintza da kultur topagune den liburudenda berri honen enpresa bultzatzailea.

IKA-K HABETIK JASOTAKO DIRU-ZIGORRA SALATU DU

IKA alfabetatze eta euskalduntze elkarteak Jaurilaritzaren menpeko den HABE Institutuak ezarri dion zigorra gogor kritikatu du. Izan ere, bi taldeek elkarrekin sinatua duten akordioak ezartzen dituenak baino 29.000 ikastordu gehiago eman ditu IKAK azkenengo ikasturtean eta datorrenean jaso behar zuen diru-laguntzatik bi milioi eta erdi pezeta kenduko dizkio HABEK. IKAK Institutuaren jarrera onartezintzat jo du, euskara ikasi nahi zuten 90 ikasle kanpoan utzi ez, horixe izan baita gure bekatu bakarra.

Uda honetarako
begi itzalik ederrena
aurkezten dizugu

Eguzki **Betaurreko**
Graduatua Mendia Optikan



<http://www.multiopticas.es>



ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Larunbat arratsalde zabalik: 5.00 - 8.30

Montehermoso eta Musiketxea klasikoen gune

Gudaleko Kultura Sailak musika klasikoko hainbat saio iragarri ditu uda honetan zehar gozatu ahal izango direnak. Aurreko urteetan San Antonio kaleko Musiketxeak jasotzen bazituen, aurtan Montehermosoko Klaustroan ere dastagai izango dugu aipaturiko ekitaldi sorta. Kultur Agendan aurki dezakezue uztailako programazioari dagokion kontzertu-zerrenda.

DANTZA PLAZA BERRIAN

Jadanik ekin zaio Dantza Plazan ekitaldi multzoari. Berau, larunbatero

burutuko da, arratsaldeko zazpi eta erdietatik aurrera. Horrela iraileko 14a bitartean, Plaza Berriak musika saioak hartuko ditu, bikoteka dantza egiteko apropos-aproposak. Hileko bigarren larunbatean, ordea, dantzaldia ez da Plaza berrian izango, Hebiillas plazan baizik.

Igandeetan eta Florida Parkean, bestaldetik, ohi bezala, Gasteizko Udal Musika Banda arituko da, Musika Kioskoak azken hiru hilabeteotan bizi izan dituen konponketa lanak amaitu eta gero. Uztailaren Setik eta irailaren 20ra arte, iganderoko hama-



Montehermosoko Klaustroak eta Musiketxeako lorategiak (irudian) jasoko dituzte musika klasiko saioak

bi eta erdietan gure nagusiek zita dute, esan bezala, Florida Parkeko Musika Kioskoan.

Artistek kalea bere egin zutenean

Ka l e a Artistentzat izenpean, gure hiriko karrikak jokoz eta kolorez jantzi ziren ekainaren azken bi asteburuetan.

Ekitaldi hauek Udaleko Kultura Sailak antola-

tuak izan ziren eta Gasteizko erdialdea animatzea zuten helburu. Horrela, txikiak, gazteak eta ez hain gazteak ere magia, antzerkia, musika eta beste hamaika arlotako ikuskizunak gozatzeko parada izan zuten.

Puxikekin eskulturak egiten dakien Willy Monroe, Oihulari Klown umorezko antzerki taldea, Bandora magoa eta Peach akrobata eta malabarista Kalea Artistentzat programa osatu zutenen adibide batzuk baino ez dira.

Eltziego Eusko Ikaskuntzaren bazkide ekainaz geroztik.

Udal erabaki horrekin elkarteak diruz eta sinbolikoki babesteaz gain, Errioxako udalerria Eusko Ikaskuntzak antolatu ekitaldien egoitza izan daiteke, baita kultur arloko aholkuak jaso ere.



Willy Monroe puxikekin egiten dakizkien aho-zabalik utzi zituen haur gasteiztarrek

MERKURIO-KADIMOAN %0a

CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA

CEGASA
INTERNATIONAL
TOP ENERGY
ALKALINE

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

IPARRA
taberna
Giro ezin hobea!

Florida, 80
Tfnoa. 26 77 81 GASTEIZ

ALISAS
TABERNA

KUTXI 50

Eneko Llanos Estatuko triatloneko txapeldun absolutua

Eneko Llanos gasteiztarrek distantzia olinpikoko Espainiako Triatloi Txapelketa bereganatu zuen ekainaren erdialdean Murtziako Aguilas herrian. Enekok ordu bete, berrogeita zortzi minutu eta berrogeita hamairu segundu behar izan zituen 1500 metro igerian, 40 kilometro bizikletaz eta 10 kilometro korrika egiteko.

Munduko Koparako puntuagarria zen Aguilasko lasterketan lorturiko emaitza honekin, Eneko Llanos rankineko hogeita bigarren postua izatera pasa da. Rankinean agertzen den Estatuko hurrengo triatlota bere anaia dugu, Hector, Murtzian brontzeko domina erdietsi ostean. Gasteiztarren nagusitasuna, hortaz, agerian geratu zen, beren taldeak ere, Judimendiko SVC, alegia, taldekako sailkapena gidatu baitzuen. Llanos anaiek antzerako emaitza eskuratu zuten maiatzean ere, sprint modalitatean (tarte laburragoan) lehen eta bigarren lekuen jabe ginez.



Llanos anaiek
Estatuan
aurkakorik
ez dutela
demostratu
dute azken
urte
hauetan
guztietan

Iker Iturbek Real Madrid taldearekin fitxatu du. Horrela, EEBBetako unibertsitarien Ligan horren lan bikaina burutu eta gero Baskonian jolas zezakeela uste genuenok desilusio handi horrekin ekingo diogu, berriz, hurrengo denboraldiari: hamar jokalaria, hamar kanpotar!

JOSEBA VADILLO ESPAINIAKO TXAPELDUN

Gasteizen ez da ezagunegia, bai ordea Artziniegan, bere jaioterrian; hango festetako pregoilaria izan delarik. Joseba Vadillo buru-paralisisiduna da eta ehundaka minusbaliatuk bezala, kirola hautatu du bere gabezia bideratzeko. Slalom kirol egokitua aukeratu zuen Josebak, eta egun Estatuan ez dago bera bezalakorik. Izan ere, Corian egin berri den Espainiako Txapelketan azken sei alditan txapeldun izan zena garaitu eta txapela jantzi zuen. Kirol hau gorpildun aulkiarekin hainbat oztopo gainditzean datza, ahalik eta denbora gutxien baliatuz. Josebak Espainiako Txapelketa ondo hasi bazuen (lehen eguneko saioan hirugarrena izan baitzen, lehenarengandik segundu bakar batera), finaleko lanak bere eta entrenatzaileraren helburuak erabat gainditu zituen. Ekainaren 14an buruturiko finalean, Vadillok denborarik hobere-na egin zuen (3 minutu eta 23 segundu), sari nagusia Arabara ekarriz. Zorionak, txapeldun!



e o
g u
n e
n u
a



Peru, 8
22 60 50

Jose
Mardones
kalea, 8
26 35 40

Arana, 30
25 24 00

MARRAZKIAK
KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 13 27 20

DIBUtec

GASTEIZ

Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

• Material escolar y de oficina

• PAPER BIRZIKLATUA

• Fotokopiak

kolorez eta Zuri-Beltzean

Arte ederretarako...
behar duzun
guztia

PAPERTEGI TEKNIKA

A, ze hotza!

Araba Euskaraz Geu Gasteiz biluzik, denon artean jantzi dezagun kanpainari ekin genion

Aspaldiko gauza da bai gureak zein Euskal Herriko gainontzeko herri aldizkariak pairatu behar dituzten diru-gabezia larriak. Aldizkariak egiten ditugunok eta hauek irakurtzen dituztenek euskararekiko dugun maitasun harremanak azal dezake soilik herri aldizkariaren fenomenoak bizirik irautea.

Hori guztia dela eta Geu Gasteizek kanpaina berria estreinatu zuen ekainaren 7an, Araia eta Zaldondo artean Araba Euskaraz festa ospatu zela aprobetxatuz. Geu Gasteiz biluzik, denon artean jantzi dezagun kanpainaren helburu bakarra harpidedun berriak lortzea da, horixe baita aldizkariaren iraunbizitzea ziurtatu dezakeen bide bakarra.

Zuen laguntzarekin, ahoz-ahokoaren bidez, egun batean duela 5 urte izan genuen ametsa gauza daiteke, Gasteizko euskal hiztun guztiengana



Harpidedun berriak lortzea du aldizkariak helburu nagusi ekin berri dion kanpaina bitxi honekin

heltzea, alegia. Geu Gasteizek harpidedunak behar ditu eta zuk lortzen lagundu diezagukezu.

Ikastetxetan eginiko harpidetza kanpaina honako lagunari egokitu zaio zozketatutako liburu-sorta:

Miren Fdez. de Gorostiza (Koldo Mitxelena Institutua)

Erakusketa ibiltaria

Arabako euskal hotsak herrialdeko euskararen inguruko erakusketa Asparrenako Kultur Etxean izan zen Araba Euskaraz, ehundaka lagun bisita jaso zuelarrik. Asparrenako Udala izan da Geu Gasteiz aldizkariak antolatu eta Julian Garcia de Albeniz araiarra protagonista duen mostra eskatu

duen lehena. Aldizkaria egiten dugunon nahia erakusketa ibiltaria izatea da, udalerrri ezberdinetan jaiotako idazleei buruzko informazioa gehituz (Asparrenan Garcia de Albeniz, kasu). Erakusketa jaso nahi duten udalek zein bestelako taldeek Geu Gasteiz aldizkarira deitu baino ez dute egin behar.

lehiaketa

I. GEU GASTEIZ UDARAN ERE

ARGAZKI LEHIAKETA

ALDIZKARIKO HARPIDEDUNENTZAT

OINARRIAK

Oporretan ateratako argazki oro aurkez daitezke, baldin eta beronetan gure aldizkariaren azalen bat agertzen bada. Mendira, hondartzara edota basamortura bazoaz, Araban geratu ala urrun bidaiatzea aukeratu baduzu, eraman zurekin ale bat eta sari piloa irabaz dezakezu.

ARGAZKIAK AURKEZTEA

Argazkiak koloretakoak izan behar dira, 10x15, 15x20 edota 18x24 neurrietan. Diapositibak ez dira onartuko, bai ordea diapositiba batetik eta aipaturiko neurrietako batean paperean ateratako kopiak.

Argazkiak postaz bidali behar dira, irailaren 15a baino lehen. Argazkiaz gain, paper zuri batean argazkia atera duenaren izen abizenak, adina, helbidea, telefonoa, eta argazkian atera duen lekua (herria, herrialdea, nazioa...) adierazita egon beharko dute.

EPAIMAHAI

Zein argazki saritu hiru pertsonen osaturiko epaimahai batek erabakiko du (Geu Gasteizko kide bat, Geu Elkarteko kide bat eta argazkilaritzan aditu bat). Argazkiaren kalitateaz gain aldizkariaren agerpena ere kontuan izango dute.

SARIAK

Oroigarriak, afariak, kamisetak, liburu-sortak, eta askoz gehiago.



HEGOALDE
euskaltegia.

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

matrikula
zaitez!

Tu Invernadero
zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

Agur eta ongi- etorri Sibori

Ez, gu ez gara futbola kirola baino gehiago dela uste duten horiekin parekatuko. Ez, gu ez gara ere beste euskaldun askok egin bezala (Espainiako taldea Mundialetik at geratzean adibidez) futbolaren inguruko jazoera bat dela eta negar egiten hasiko. Informatu besterik ez dugu nahi eta horixe egingo dugu, denentzat gainera: Alaves taldearen aldekoentzat, Athleticen daraman kanteraren aldeko politikaren jarraitzaileentzat, Gonzalo Antonek daraman kanteraren aldeko politikaren defendatzaileentzat, Gonzalo Anton gustuko ez dutenentzat, Siboriren jokua Mendizorrotzan ikusi nahi dutenentzat, Sibori Mendizorro-



Athleticek Sibori fitxatu eta datorren urterako Alaves utzi egingo du

tzan ikusi nahi dutenentzat, Jubenil mailako Alavesek Errege Kopako finalera Siborik kanteran piztu zuen esperantzagatik heldu dela uste dutenentzat, eta norbait ahaztu bazaigu berarentzat ere, Arturo Igoroin Siborik Alaves taldea utzi egin du.

Gasteiz Cup-en III. edizioa

Uztailaren 6tik 11ra bitartean Gasteiz Ajuria Kirol Elkartek antolatuta burutuko da gure hirian Gasteiz Cup-en III. edizioa, non bertako zein kanpoko eki-
poek esku hartuko duten. Bi dira ikusi ahal izango ditugun modalitateak: Futbol-7 (gizonezko gazteenentzat eta emakumezkoentzat) eta Futbol-11 (gizonezko helduenentzat eta emakumezkoentzat).

Partiduak San Martingo belar artifizialeko zelaietan, Trebiñon (Franco herriko belarrezko zelaian), Estadion eta Sansomendi Gizarte Etxean jolas-tuko dira. Azken hau dugu torneoaren oinarritzko gunea, bertan karpa bat jarriko delarik, futbolaz gain bes-

telako jarduerak ere eskainiko direlarik: "futbolei"-a (boleibolaren antzekoa, baina oinekin), musa, tutea, boleibola, e.a...

80 TALDE INGURU

Karpak eskaintzen duenaren bitartez gasteiztarrok zein kanpokoek hauetan parte hartzea dute helburu Ajuria Kirol Elkarteko antolatzaileek. I. edizioan 30 talde, II.-ean 50, baina aurtengo aldiari orotara 80 talde inguru izango dira zelairik zela. Emakumezkoetan iazko edizioan 4 talde baino ez bazen izan, aurtengoan zifra hau bikoiztu egin da eta 8 izango dira futbolarik emakumezkoen ekipak. Halako egitasmoekin arduradunek emakumezkoen futbola zuzpertz egin nahi dute. Informazio gehiago lortzeko jo ondoko lekura:

Ogeta Pilotalekua (Mendizorrotza)
arduraduna: Iñaki Egues
945 16 10 95



GUREA

jatetxea

Konstituzio plaza, 10
Telefonoa: 24 59 33

1 x 2 =
2

2000 BAGARA
4000 IZAN GAITEZKE



HARPIDEDUN!

zure aita, ama, anaia, arreba, iseba, osaba,
luhengusua, lehengusina, semea, alaba,
aitona, amona, iloba, berramona, berraito-
na, biloba, aitagiarreba, amagiarreba,
suhia, erraina, lagun eta ezagunak...

EGIN ITZAZU HARPIDEDUN

PASAIEZU TXARTELA, BETE DEZATEN

Izen-deiturak _____
Telefonoa _____
Helbidea _____
Kodea _____
Herria _____
Jaiotze data _____ Lanbidea _____
Urteroko kuota: 1.500 pezeta
Kontu zenbakia (20 zenbaki) _____
Entitateak Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia _____
GEU GASTEIZ ALDIZKARIA
PEDRO AGUIA, Z. BA.
01008 TFFNOA: 22 21 58



Hamarnaka artista gasteiztarrek eta kanpotarrek hartu zuten parte hirugarren aldiz Aitor Urdangarin arte-aretoak eta Gasteizko Udaleko Kultura Sailak antolaturiko kaleko olio-margo lehiaketa arrakastatsu zein disdiratsuan.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: ASIER PZ. DE KARKAMO



Gasteizko alde zaharra

Dato kaleko ibiltaria, Espainia plazako arkuak edota Andra Mari Zuriaren plazako erai-kuntza, monumentuak eta lorategiak izan ziren Aitor Arte Galeriak antolatu eta Udaleko Kultura Sailak lagundutako kaleko olio-margo lehiaketan parte hartu zuten gehienek aukeraturiko gaiak.

Ekainaren 28an ospatu zen, Kalea Artistentzat egitarauaren barnean, eta goizeko hamabietatik arratsaldeko seiak arte giro ederraz jantzi zuen Gasteizko Alde Zaharra. Azken orduan, lehiakideetatik hiru *acesitak* jaso behar zituztenen izenak argitu behar zire-



la eta, artisten urduritasunak eta oinezko harrituen kuriositateak elkarrekin egin zuten topo. Irabazleen izenek ez dute inporta, egun hartan artea izan baitzen, lehia guztien gainetik, txapeldun.

LA RIOJANA

jatetxea
on egin!

bokatak, pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile (KUTXI), 33 tfnoa. 25 02 39

ONGI
ETORI
I

xurru



KUTXI 103
GASTEIZ

**BAR
KLAKÉ**

KUTXA, 2
TFNO.
143883



GASTEIZ

kide **APAINDURA**

Zerkabarren (Cercas), 27 Tfnoa: 14 41 95 GASTEIZ

k - - -

EUSKALTEGIETAN, NUMERUS CLAUSUS?
ZIGORRIK EZ!
 Erromatar hauek erotuta daude!

98ko IRAILA

5 ordu	8:30-14:00	18.000	MATRIKULAZIO EPEA
2 ordu	8:30-14:00 11:00-13:00 15:30-17:30 20:00-22:00	9.300	ekainaren 1etik uztailaren 28ra

HADE !

Nik ezin dut euskara ikasi
 Hik ezin dun/k euskara ikasi
 hark ezin du euskara ikasi
 guk ezin dugu euskara ikasi
 ?uk ezin duzu euskara ikasi
 in duzue euskara ikasi
 in dute ra

185
 gasteiz

epaitegietan ere **EUSKARA** aldarrikatzen

EUSKARAREN ERABILERA URRIA IZAN ARREN ABOKATUAK
AURRERAPAUZOAK EMATEN HASIAK DIRA



Bistan dago maiz gure arteko
auziak konpon daitezen justi-
ziaren erabakiei men egin
behar diegula nahitanahiez.
Epaitegietan tramitatzen diren
salaketa guztiek, dibortzioek,
ebasketek, hilketek eta abarrek
epaileen ebazpenari itxaron
behar diote. Administrazio
osoa mugitu behar da arazo
bati irtenbidea emateko; abo-
katuek, fiskalek, epaileek, idaz-
kariak... aferak bakoitzean lane-
an dihardute eta gehiengoak,
tamalez, ez da euskalduna.
Gai honi dagokionez, auzi-
prozesuetan ere gure hiz-
kuntz- eskubideak berma dai-
tezen, euskaldunok zeresanik
badaukagu.

TESTUAK: **RAUL SAEZ DE BURUAGA**

ARGAZKIAK: **EDORTA SANZ**

Arazo judizial baten aurrean, Abokatuen Elkartegoaren Zuzendaritza Batzordeak 1997. urtean euskararen komisioa sortu zuenetik, abokatu euskaldun baten zerbitzuak errekeritzea askoz errezagoa da Araban. Letratu euskaldunik ezagutu ezean, Abokatuen

Elkartegoaren telefono zenbakia (945 23 10 50) sakatuarekin bakarrik, kontu hau konpondu egiten da. Guk geuk halaxe frogatu dugu, eta gauza interesgarri asko ezagutu ahal izan dugu. Zerbitzu honek euskararekiko bidezko jarrera adierazten du abokatuaren aburuz. Gizarteak eskatzen zuen

EAEn 185

epaile daude
eta
horietatik
guztietatik
hamabik
baino ez
dute euskara
ezagutzen

eta guk -Abokatuen Elkartegoak- eskari horri erantzun behar geniolakoan sortu genuen zerbitzua euskara-batzordekoa den Izaskun Martinezek azaldu beza-
la.

Izan ere, oraindik hainbat esparrutan hobetu beharra daukagu; ofiziozko lane-
tan aritzean, atxilotuari laguntza emate-

 **Ardatz** itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana kalea, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa


GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile (KORRE), 14 San Migeleko Pasabidea
Tfno: 12 08 88

01001 - GASTEIZ

ko orduan, abokatuen arteko txandak hobeto antolatu beharko ditugu, bezeroak hala eskatuta euskarazko harremanak berma daitezen. Alabaina zerbitzu honek abokatua-renganako hartuemana euskaraz izatea baino ez du bermatzen, gainontzeko auzi-prozesua gazteleraz izan baitaiteke. Eta hemen hasten da benetako arazoa.

Euskararen erabilera

Epaileak, Konstituzioa eta Botere Judizialaren Lege Organikoa kontuan harturik, ez daude euskara ikastera behartuta. Euren esku dago. Gaur egun Euskal Elkarte Autonomoan 185 epailetatik hamabik baizik ez dute euskara ezagutzen. Eta Justizia administrazioiko langilegoaren datuen arabera egoera bera islatzen da; ezagutza eskasarena. Araban %2,32 baino ez da euskalduna, eta %20-k kasik menperatzen du hizkuntza.

Datu hauek ikusita, gizarteko hamaika eremutan gertatzen den moduan, euskara laneko hizkuntza ez dela onartu behar da. Gaur egun euskararen erabilera oso murrizta da Justizian. Abokatu euskalduna den Joseba Oriak dioenez Gasteizen, Zuzenbide mailan edo Justizia-administrazioari dagokionez, euskara baliatzen dutenek 'militantzia linguistikoa' bat edo 'hizkuntz-militantzia' batengatik egin ohi dute. Gainera, euskaldunak diren ugarik, auzi-prozesu baten aurrean, euskara saihestu egiten dute oro har.



Justizia euskalduntzeko lan handia egiteke dago. Besteak beste, makina bat liburu euskarara itzuli behar dira.

ak zapaldu. Legearen arabera auzi batean edozeinek nahi duen hizkuntzaz baliatzeko eskubidea du, baina Justizia-administrazioiko euskararen ezagutzaren ehunekoa kontuan izanik, gehienetan itzultzaileen laguntza ezinbestekoa da. Hori jakin eta ere, Araban, euskara erabili den auzietan itzultzaileek esku hartu behar izan dute.

Itzultzaileen sistema ez dakit zein puntutaraino ez doan hiritarren eskubideen aurka, ez baititu ahalmen horiek zeharo ziurtatzen. Juridikoki egon badaude zentzu zehatza duten kontzeptu eta esamolde bat edo batzuk eta, nire adira, itzultzaileek ez dute hizkuntza juridiko hori zertan menperatu azaltzen zuen Joseba Oriak.

Itzultzaileak ez dira legelariak, euren modura itzulpena egin, eta batzuetan ez dute zuk esan nahi duzuna adierazten.

Auzi baten aurrean itzulpenak astiro-astiro egin behar dira, eta abokatuak sarri askotan itzultzaileak esaten duenari adi egon behar du, maiz bere argudioaren haria galduz gaineratu zuen abokatu euskalduna den Susana Sukunzak. Bezeroak duen berehalakotasunaren eskubidea galtzen da epaileak hizkuntza ezagutzen ez duelako.

Euskaldunon eskubideak benetan ziurta daitezen, epaileek eta justizia-administrazioiko langileek euskara menperatu beharko lukete; euskal sare bat sortuz, akaso.

Hizkuntza juridikoa

Haatik, abokatuak esan lez, euskara ezagutzearekin bakarrik ez da nahikoa auzi-prosezu bat berme osoz aurrera eraman ahal izateko. Justizia-administrazioan komenigarria da hizkuntza juridiko bereiztua menperatzea. Horretarako Abokatuen Elkartegoaren euskara batzordeak hizkuntza juridikoaren inguruan lehenengo ikastaroa antolatu du azken hilabeteotan burutzeko. 13 bat lagunek parte hartu dute ikastaro honetan, horien artean Joseba Oriak eta Susana Sukunza abokatuak ditugularik.

Oso ikastaldi interesgarria izan da, piloa ikasi baitugu jakinarazi zuen Susanak. Esparru honetan lan handia egiteke dago; makina bat liburu euskaratzea, esaterako. Egia esan, euskal hizkuntza juridikoa lehenengo urratsak ematen hasia da eta terminologia aproposa osatu beharra dago. Gaur egun bi korrante daude; lehenengoa, euskal hitzak bilatzen dituen, beharbada terminologia asmatuz, eta bigarrena, onargarriagoa, erdaratik hitzak hartzen dituen. Denboraren poderioz erabilerak zehaztuko du zein terminologia erabili. Dena den, ikastaro honen antolatzaileek espero dute eskola hauekin jarraitzea, jurista euskaldunen trebakuntzarako lagungarria oso izan baitaiteke.

LEGEAREN ARABERA AUZI BATEAN EDOZEINEK NAHI DUEN HIZKUNTZAZ BALIATZECO ESKUBIDEA DU, BAINA GEHIENETAN ITZULTZAILEAREN LAGUNTZA EZINBESTEKOA DA.

Itzulpenak, eskubideen kontra?

Hala eta guztiz ere, egoera honek ezin ditzake euskaldunon eskubide-

ARANBIZKARRA

ZURE AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16 28 28 39
01002 Gasteiz

ELEKTRIZITATEA

muntaiak elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR

Uetzal

HegoAmerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea • S. Frantzisko
kantoiko ertzean Tfnoa: 25 03 52

Kontuz hi, Canaille kalean dago!

Canaille komisarioa eta Durán bere laguntzailea dira komikiaren protagonistak eta beraietaz baliatzen da Mikel Valverde istorioak sortzeko. *Niri gustatzen zaidana istorioak kontatzea da, eta laburrak baino luzeak nahiago ditut. Horrexegatik, behin baino gehiagotan galdetu didate zergatik ez ditudan Canailleren istorio luzeak idazten eta atalka kaleratzen, baina bi hilabetero argitaratzen den aldizkari batean ezin egin daiteke horrelakorik. Jendea hoztu egiten da. Monografikoan, ordea, horretarako aukera dago eta Canailleren lehen istorio luzea aurkituko du irakurleak: 'Escarrone informea'.*

Ezohiko formatua izan arren komikiaren protagonistak eta estiloa bera Tmeon ezagutu egin dena da: *Nik egiten dudana umorea zuria da; ez zait sexua edo drogei buruz hitz egitea gustatzen, ez zuzenean behintzat. Hala eta guztiz ere, gai sozialari ez diola zeharo ihes egiten onartu du Valverdek, polizia bat protagonista hartzea ez dela guztiz aukera inuzentea, alegia. Aukera markatua da. Dena den, Canaille faxista bat bada ez da polizia izateagatik, baizik eta albokoak zapaltzen dituelako.*

Nahi dituen istorioak kontatzeko estilorik sinpleena aski duela uste du marrazkilari gasteiztarak, baldin eta zerbait adierazteko gauza bada bederen: *Estilorik hoberena sinpleena da; trazu garbia eta azkarra, beharrezkoa ez den guztia kentuta, baina komunikatzeko gai dena. Komikiak marrazten zein ilustrazio lanetan estilo berbera erabiltzen du Canailleren sortzaileak, nahiz eta, berak onartu duenez, komikiak ez du ilustrazioarekin zerikusirik. Komikietan nik neuk egiten ditut gidoiak eta oso gustukoa dudana lana da. Ilustrazioan arituz piloa ikasten ari naiz.*

Shola, Markoni, Rene,...

Azken bost urteetan ilustrazio lanetan aritu da Mikel Valverde: Bernardo Atxaga eta Patxi Zubizarretaren liburuetakoko marrazkiak, agendak, liburuxkak, antzerki lanetako publizitatea... Garai horretan Shola, Markoni, Rene errinozerontea, Martín esploradorea... eta beste hainbat pertsonaia jaio dira gasteiztarren irudimenetik.

Egun Rene errinozerontea, garai batean Andrés zena -euskararen soinura egokiago egiteko aldatu

mikel valverde

Canaille komisarioa eta Durán bere laguntzailea kalean daude berriro ere Mikel Valverde eta Tmeo-ren eskutik.

Canaille komisarioaren zazpi istorio bildu ditu Tmeok argitaratu berri duen monografikoak, tartean hogeita zazpi orritako istorio luzea dagoela, zenbaki berezi honetarako espreski egindakoa.

TESTUAK: LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI ARGAZKIAK: EDORTA SANZ



nion izena- Ipurbeltzen agertzen da; Apirilean hasi nintzen Ipurbeltzen, bai eta pozik nago, hogeitun urte bete dituen aldizkaria da eta dexente hedatua dago ikastola, euskaltegi-tan,... Nire ustez Tmeo eta Ipurbeltz erreferentzia garrantzitsuak dira Euskal Herrian.

Beti ikasi eta hobetzeko ahalegi-nean museotara jotzen duela azaldu du Valverdek, margolari handien lanak aztertuz asko ikas daiteke. Beraien lanetan gauzarik esangura-tsuenak ikusi egiten dira; keinu bat, irribarre bat,... Trazu bakar batez egina dagoena askotan.

Gaur egun literaturgintzako editore eta egileek ilustrazioak aintzakotzat hartzen dituzte marrazkila-riaren iritziz: Editoreak marrazkiak liburu osagarri moduan ikusten

hasiak dira eta idazleei ere interesa nabaritzen zaie; egile bakoitzak bere marrazkilari kutuna du eta horrek zer nahi duten badakitela adierazten du.

Marrazkiek haur lite-raturgintzan lekua aur-kitu duten arren, orain-dik ere ilustrazioak eta komikiak umeen mun-dura mugatzeko joera ez da erabat hautsi. Mikel Valverdek Euskal Herrian komikia irakur-tzeko aztura gutxi dago-ela salatu, eta beste lekuetan dagoen tradizio eta kulturari inbidia diola aditzera eman du: Batzuen ustez helduentzako egiten diren komiki baka-rrak lizun horiek dira, eta, azken buruan, ez dakit hamairu-hamalai

urteko gazteek ez ote diren horien erosleak. Bere aburuz komikia gau-zak esateko beste hizkuntza bat

“batzuen ustez helduentzako egiten diren komiki bakarrak lizun horiek dira, azken buruan, hamairu urteko gazteek erosten dituztenak”

baino ez da, helduentzako gazteen-tzako bezain egokia: Nik behintzat berdin planteatzen ditut bi lanak; esan nahi dudana esan, adin bakoit-zari dagokion hizkeran.

TMEO, baietz!



Tmeok bi album berezi argitaratu ohi ditu urtero. Halaxe da duela urte asko eta bertako ohiko kolabora-tzaileei egoki-tzen zaigu lehen-a-go ala beran-du a go.

Oraingoan niri tokatu zait.

Tmeon bere lana argitara eman ahal izatea pozgarria da oso Mikel Val-verderentzat, Gasteizen egiten den aldizkari hau komikiaren munduan erreferentzi puntua dela uste baitu. 5.000 aleko hedadura du aldizkariak eta 1.000 bat Euskal Herritik kanpo saltzen dira. Biziki atsegina da hasieratik ari garenokin batera marrazkilari gazteak ikustea bertan, gauza berriak egiteko irrikaz.

Bestetik, Tmeon ez gara diru truk ari, hori argi dago, baina norberak nahi duena egin ahal izatea txit garrantzitsua da, eta aukera hori ere badaukagu.

Tmeoko lagunekin eta lanean dagoen giroarekin oso kontent dago marrazkilari gasteiztarra: Oso ondo moldatzen gara, familia giroa dagoe-la esan daiteke, zentzu positiboan, ... inork ez baitio inori ezer eskatzen eta inork ez du inolako beharkizunik.

Orain makina bat urte golf kirola zeharo ezezaguna zen Araban. Kirol hau gogoko zutenek Hondarribia edota Kantabriarako bidea hartu behara zeukaten. Egun, berriz, ez da horrelakorik gertatzen, gurean lau golf zelai baititugu; horietatik bi, pribatuak, Legutianoko Larrabea eta Altube gainean dagoen Zuia, alegia. Beste biak publikoak dira, Urturi eta Lagran hain zuzen. Ikusten denez, aukera zabala da. Patatak landu beharrean, golf zelaia... Gure aitona-amonek ikusiko balute!

Gure aitona-amonek ikusiko balute!

Urturi herria Arabar Mendialdean dagoen herri nimen bat da. Naturgune paregabe batek inguratuta, bertan aldaketak nabarmenak izan dira golf zelaia martxan jarri zenetik: bisitariak, kotxeak nonahi, jatetxeak, nezakal turismoa... Hori guztia patata ardatza zen eskualde batean. Golf zelaia nolabaiteko aberastasuna sortu du bere inguruan, eta bertako biztanleek antzeman dute aldaketa, noski. Ez dakigu guztien onurarako izan den, baina batzuek behinik behin golf-a dute ogibide.

Horietako bat Jose Angel Ozaeta dugu. Bernedon jaioa, nekazarien etxe batean orain 32 urte. Aita-amen lana alde batera utzi, eta golfean hasi zen burubelarri. Ordutik urteak iragan dira eta egunero hamaika ordu Urturiko zelaian eman ondoren, egun golf irakaslea dugu Jose Angel. Golf irakas-

lea nongoa, eta arabarra! Ederak eta bi entzuteko jaioak gara!!

Kirol garestia

Alabaina gurean aurrera-pausoak handiak izan badira ere, oraino golf ez da guztiontzako kirola; hots, zoritxarrez, guztiok ez daukagu sosik golfean aritzeko. Egia da gaur egun ez dela beharrezkoa aberatsa izatea golf zelai batean sartzeko, baina, bestetik

ere, ez da kirol merkeenetarikoa bat. Guztioi helarazteko ahalegin horretan Ozaeta eta bere lankideak ditugu. "6.000 pezetaren truke golfean aritzen irakasten dihardugu, eta ene iritziz, hori ez da dirutza. Badakit, zuk duzun iritzi bera askok eta askok dutela, baina ez nator horrekin bat".

Horrela, golf zelai batera jo nahian bagabiltza, lehen esan bezala, bi bide daukagu hautagai; pribatua (hilean 12.000 bat pezeta ordainduz) ala publikoa (honako honetan, aldiz, 7.000). Beharrezkoak diren arropak, zapatak eta makilak alokatzeko aukera egon badago, baina normala den lez, astero jokatzu gero, ekipoa erosten bukatuko dugu. Hori guztia 70.000 pezetan aterakiguke... Atera itzazue kontuak!

Nolanahi ere, gero eta arabar gehiagok jarduten dute golfean; 2000 bat jokalaria, orotara. Urturiko eta



Lagraneko zelaia honen lekukoak dira, bertara arabarrak ez ezik, atzeritarrak ere hurbiltzen dira eta. Ozaetak dioenez, "Estatu Batuetan lanera joan aurretik, golfean aritzen dira batzuk. Horrek esan nahi du goizeko seietan altxatu ohi direla. Hemen ez da horrelakorik gertatzen, baina asteburuetan jendez gainezka daude zelaia".

Zuetako baten batek golfean haste-

ko gogoia eta praktikatzeko behar beste diru baldin badu, badaki non duen tokia. Halere, zelairatu baino lehen, ikasi beharra izango du, eta horretarako ez dago zertan Arabar Mendialdera joan, Mendizorrotzako eta Estadioko kirol instalazioetan golf ikastaroak eskaintzen baitira. Hantxe Jose Angel Ozaetarekin egingo duzue



botepronton

Luis Aldazabal

Real Madridzalea

Batzuei atsegin ez zaien arren, gurean ere ugari dira Real Madridzaleak. Hala ere, gezurra dirudien arren, Real Madriden aldeko talderik ez zuen Estatuko lurralde bakarra Araba genuen. Tamalez, edo zorionez, aldatu egin da hori, eta orain "La Ceba" izeneko Real Madriden aldeko lagun taldea berriki agertu da Eltziegion. Lagun horietako batekin mintzatu gara, eta berak agindu bezala aurkeztuko dugu: Euskalduna eta Real Madridzalea.

Arabako Real Madriden aldeko lehen taldea non, eta Eltziegion...

Horrela izan behar zuen, hemen Real Madridzaleak asko izan baitira betidanik.

Lagun guztiek onartu dizute "bekatua"?

Komeriak eta... egunerokoak dira, baina guztiek errespetatzen naute.

Eta zer esaten dizute herrian?

Adarra jotzen didate. Badakizu: "Deportivo Alavesekin jai duzue", "azkenean Europako kopa koloreetan lortu duzue"... eta halakoak, baina ohituta nago.

Gainera, zure abizenarekin, Aldazabalekin, alegia, ez al da errazagoa Athleticzalea izatea?

Baliteke, baina zelaian Real Madrid taldea ikusten dudanean, ez dut aintza-kotzat hartzen nongoak diren, euren koloreak baizik..., eta nire koloreak txuriak dira; hau da, merengea nauzue.

Baina, ez zara Ultra-Sur taldeko horietako bat izango?

Ezta pentsatu ere! Horiek gizarteko zaborra ditugu. Zelai zehatz batzuetan daude: Santiago Bernabeun, Sarria zaharrean...

Real Madrid gobernuaren futbol taldea eta Espainako lotsa omen da...

Demokrazia garaian frankismoan baino liga gehiago irabazi ditu Real

Madriddek. Esaldi horrekin ez nago ados, azter itzazu bestela 1975etik hona eskuratu txapelketak.

Zein da zure jokalaririk gogokoena, baina zelaian, ez prentsa arrosan?

Miguel Porlan Noguera "Chendo", Murciako Totana herrian jaioa. Profesional handi bat, izugarri maite du Real Madrid..., eta erakutsi du, gainera, ez baitu bere burua milioien truk saldu.

Zer egingo diogu, baina aurtan Champion League eskuratu duzue...

Egun alaiak izan ziren haiek. Urduri oso egon nintzen egun hartan, baina gaez parranda ederra egin nuen ospatzeko.

Hlere, Errege Kopan, Deportivo Alaves parean izan, eta kopatik kanpo...

Horixe nahi nuen nik, Deportivo Alaves beti izango baita nire taldea. Aurtengo udan lan egingo dut, datorren urtean Alaveseko bazkidea izan nahi dudalako.

Bada, Mendizorroztako Deportivo Alaves Real Madriden artekoan emadazu emaitza datorren denboraldiari begira.

2-0, Deportivo Alavesen alde.

Ni bezalako sudurluze asko jasan behar izan dituzu?

Beti dago baten bat, baina txantxetan hartzen ditut beti.

TESTUA: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

topo, irakaskale tre-bea. Berak ere ikasi behar izan zuen eta.



TESTUAK: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL
ARGAZKIAK: JAIME ORTEGA

UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendañu kalea 48 • Tfnoa: 22 34 33

GASTEIZ

MIKO

izozkiak



19
geu gasteiz

VITORIA Jazzteiz

Tickets out kartela ezarri ez bada ere, dagoeneko ezinezkoa da uztailaren 12tik 18ra bitartean Gasteizko Hotel garrantzitsuenetan logela librerik aurkitzea. Telefonoaren beste aldean "Jazzaldia dela eta dena okupatua dago" esaldia ezagun bilakatzen zaio aipaturiko egunei so Gasteiztik kanpo datorren eta hotelez hotel gela libre baten bila ekin dionari. Ez zaio, ez, erraza gauzatuko. Izan ere, aurreko hogeita bat aldietan eskuraturiko ospeak izugarritzko jendetza dakar gure hirira. Aditu guztien arabera, Gasteizkoa, munduan atontzen diren udako Jazzaldien artean onenetakoa dugu.

Izar handiegirik ez aurten, baina bai distiratsu franko. Horrela labur daiteke Gasteizko XXII. Jazzaldia eskaintzen duen egitaraua. Mavis Staples (Mahalia Jacksonen handiaren omenez), Mark Whitfield gitarrak jolea edota hainbatetan bisitatu gaituen Marcus Miller baxu elektrikoa aipagarri diren izenetako batzuk besterik ez dira.

Inoiz baino exotikoago dator Jazzaldia aurten gainera. Hiru adibide: Latin Crossings izen adierazgarri baten atzean Steve Winwood, Tito Puente, Arturo Sandoval, Ed Calle



GURE HIRIA MUNDUKO JAZZAREN HIRIBURU BIHURTUKO DA UZTAILAREN 12AZ GEROZTIK ETA 18RA BITARTEAN

eta orotara zazpi ahotsek Estatu Batuetako musika afrokubatarraren berotasuna dakarkigute. McCoy Tynerrek, bere aldetik, The Latin All Stars taldea bildu du, besteak beste, Gary Bartz, Claudio Roditi eta Steve Turrerekin batera. Eta hirugarrenez, Carles Benavent bartzelonarraren bandak, Jazz Flamenko All Stars izenekoak, musika beltza ulertzeko duen era berezia helaraziko digu.

Kalea ere jazzgune

Alboko orrialdeko egitarauan ez duzue lerro hauetan ageritako jardunaldien berri izango, baina ez genuen Jazzaldiaren informazioa emateko aukera hau pasatzen utziko festibala hobekien gizarteratzen duten bi ekitaldiak aipatu gabe. Jazz Kalean Jazzaldia burutzen ari dela uneoro gogorazten digun ekitaldia da; Gasteizko kaleetan barrena autobus edo

Arka
plazako
Ibiltaria da
aurtengo
Jazzaldia
iragartzen
duen
kartelaren
protagonista

kotxe zahar horietako batean, futbol talde bat bailitzan, auskalo zenbat musikarik hiriko kaleak zeharkatzen diharduten hori. Aurten Little Rascals Brass Bandari egokitu zaio egin-behar koloretsu hau, uztailaren 14tik 18ra bitartean.

14tik 16ra arte, bestaldetik, Jazza Estadioan egingo da, izen bereko igerilekuetara hurbiltzen direnek, eguzkiaz ez ezik, jazzaren erritmo goxoez ere belztu daitezen. Azken honetaz gozatzeko beste arrazoi bat ere bada: go, euskal taldea izango baita Jazz Estadioanaren protagonista; Gaizka Elosegik zuzentzen duen Zubipeko Futik Banda, alegia.

Gasteizko XXII. Jazzaldia

IGANDEA 12

MENDIZORROTZA POLIKIROLDEGIA

Travis Staples & Lucky Peterson

Mavis Staples: ahotsa. Lucky Peterson: organo eta pianoa.
20:30etan

1.000 pzta. (abonotik kanpo)
ASTELEHENA 13

MENDIZORROTZA POLIKIROLDEGIA

Katia & Marielle Labeque

Haurrentzako doaneko saioa.
19:30etan

500 pzta. (abonotik kanpo)
ASTEARTEA 14

MENDIZORROTZA POLIKIROLDEGIA

Joe Lovano Quartet

Joe Lovano: saxo. Mulgrew Miller: pianoa. Richie Goods: kontrabaxua. Karriem Riggins: bateria

Katia & Marielle Labeque & Koloniako WDR Big Band

21:30etan
2.600 pzta.

PRINCIPAL ANTZOKIA

3 Jazz Break

Daniel Olarzábal: pianoa. Pablo Martín: kontrabaxua. Uli Soyka: bate-

ria
18:30etan

ASTEAZKENA 15

MENDIZORROTZA POLIKIROLDEGIA

Nicholas Payton Quintet + Mark Whitfield

Nicholas Payton: tronpeta. Mark Whitfield: gitara. Tim Warfield: saxo tenorea. Anthony Wornsey: pianoa. Reuben Rogers: kontrabaxua. Adonis Rose: bateria

Dee Dee Bridgewater & Ray Brown Trio

Dee Dee Bridgewater: ahotsa. Ray Brown: kontrabaxua. Geoff Keezer: pianoa. Gregory Hutchinson: bateria
21:30etan

2.600 pzta.

PRINCIPAL ANTZOKIA



Richrad Galliano & Michel Portal Duo

Richard Galliano: akordeoi eta pianoa. Michel Portal: saxoa, klarineta baxua eta bandoneoa
18:30etan

OSTEGUNA 16

MENDIZORROTZA POLIKIROLDEGIA

Brad Mehldau Trio

Brad Mehldau: pianoa. Larry Grenadier: kontrabaxua. Jorge Rossy: bateria

Latin Crossing (Tito Puente, Steve Winwood eta Arturo Sandovalekin)

Steve Winwood: teklatuak, pianoa, gitarrak eta ahotsa. Tito Puente: tinbalak, bibratona eta ahotsa. Arturo Sandoval: tronpeta, fiskornioa, pianoa eta ahotsa. Ed Calle: saxoa, EWIa, flauta eta ahotsa. Olmaro Ruiz: pianoa, tekladuak, gitar akustikoa eta ahotsa. Tommy Anthony: gitarrak eta ahotsa. Walfredo Reyes Jr.: bateria. Manuel Egui Castillo: perkusioak. Oskar Cartaya: baxua eta ahotsa

21:30etan

2.600 pzta.

PRINCIPAL ANTZOKIA

The Uri Caine Ensemble

Uri Caine: piano eta sintetizadorea. Dave Binney: saxoa. Ralph Alessi: tronpeta. Diane Monroy: bibolina. DJ Olive: platoak. Michael Formanek: baxua. Jim Black: bateria

18:30etan

600 pzta.

OSTIRALA 17

MENDIZORROTZA POLIKIROLDEGIA

Carles Benavent & Jorge Pardo Jazz Flamenco All Stars

Carles Benavent: baxua. Jorge Pardo: saxo eta flautak. Juan Manuel Cañizares: gitara. El Potito: ahotsa. Agustín Carbonell Bola: gitara. Rubén Dantas: perkusioak. Tino di Geraldo: perkusioak

McCoy Tyner & The Latin All Stars

McCoy Tyner: baxua. Gary Bartz: saxoa. Claudio Roditi: tronpeta. Steve Turre: tronboia. Avery Sharpe: kontrabaxua. Johnny Martin: tinbalak. Giovanni Hidalgo: kongak. Aaron Scott: bateria

21:30etan

2.600 pzta.

PRINCIPAL ANTZOKIA

Joey Baron's Baron Down

Joey Baron: bateria. Eliery Eskelin: saxoa. Joshua Roseman: tronboia

18:30etan

600 pzta.

LARUNBATA 18

MENDIZORROTZA POLIKIROLDEGIA

Taj Mahal & The Phantom Blues Band

Taj Mahal: gitara eta ahotsa. Joe Sublett: saxoa. Darrell Leonard: tronpeta eta tronboia. Tony Braunagel: bateria. Larry Fulcher: baxua. Dennis Freeman: gitara. Mike Weaver: piano eta organoa

Marcus Miller Band

Marcus Miller: baxua. Hiram Bullock: gitara. Gene Lake: bateria. Bernard Wright: teklatuak. Michael Patches Stewart: tronpeta

21:30etan

2.600 pzta.

PRINCIPAL ANTZOKIA

Agusti Fernández

pianoa
William Parker

kontrabaxua
Susie Ibarra

bateria eta perkusioak
18:30etan
600 pzta.



Jazzaldiko Bulegoa:
San Prudentzio kalea, 8.

Gauerdiko Klubak

NH CANCELLER AYALA HOTELA 14tik 18ra

Mulgrew Miller Trio

Mulgrew Miller: pianoa. Richie Goods: kontrabaxua. Karriem Riggins: bateria

CANCELLER AYALA (HEHEKEN ARRETA)

Jerry Gonzalez & The Fort Apache Band

Jerry Gonzalez: kongak, tronpeta eta fiskornioa. Andy Gonzalez: baxua. Steve Berrios: Perkusioak. Larry Willis: pianoa. Joe Ford: goi eta soprano saxoak.

ACID JAZZ CAFE

Victor Celada Trio

Victor Celada: bateria. Carlos Gracia: baxua eta kontrabaxua. Victor de Diego: saxoa

den-denak gauerdiko partean

dohainik

21

guz gasteiz

POESIA dantza bihurtuta

Udaberriak dantza ekarri zuen antzerkietara ohi bezala eta Damián Muñoz dantzari gasteiztarraren azken lana ikusteko abagune izan zen: Mina.

Damian Muñozek berak dioenez, *Mina*, hainbat eta hainbat eragin dituen dantza, ikuskizun garaikidea da. *Poesia* bailitzan sortu egin dugu eta metafora anitzen bilduma da. Istorio bat kontatzen dugu, baina ez linealki, pelikuletan egiten den modura. Dantzari arabarrak Henry Miller-en hitzak hartu ditu obrak adierazi nahi duena azaltzeko: *Lan honetan gauza askori ostiko jo diegu ipurdian; maitasunari, edertasunari, bizitzari, Jaungoikoari,...* Batzuetan zoriona eta besteetan mina ematen diguten gauza horiei guztiei.

Muñoz dantzari eta koreografoak jakinarazi duenez, *lau dantzari, baina zazpi pertsonaia* aritzen dira honako lan honetan. Dantzariak Damian bera, Virginia Garcia gasteiztarra eta Zigor Zapatero eta Cristina Quijera bilbotarrak ditugu; gainontzeko hiru pertsonaiak, musika, eszenografia eta argiztapena.

Musika Pascal Gaignek, Victor Garcia de la Torrek eta Valentziako Unibertsitateko Elektroakustika sailak konposatu dute, atal bana. Oso musika berezia nahi zuen Damianek, baina hiru leku desberdinetan egindakoa uztartzea ez dela aise lortzen onartu du. *Musikaren zati bat kalean, tabernetan entzuten den horretakoa da, bestea experimentalakoa*. Musikaren indarra azpimarratzeko ohiko soinu

estereoa ordez koadrafonikoa deritzonaz baliatu dira: *Horrela ikusleari leku guztietatik iritsi dakioke eta errezagoa egiten zaigu istorioan sarraraztea*.

Eszenografia ezin sinpleagoa da: artilezko alfombra handi aGizakia eta teknologia

Berritzeak eta inoiz inork egin ez duena egiten saiatzeko bultzatzen du Damián Muñoz; sortzearen plazerrak mugiarazten du... Horregatik, teknologia bere muntaietan sartzea naturala iruditzen zaio: "Garaiarekin batera joatea normala da. Hurrengo lana XXI. mendean estreinatuko dugu. Erronka jendearekin hurbiltasuna ez urratzea da, makinak erabiltzea, baina ikusleak nabaritu gabe". Kontraesana dirudien arren, teknologiak humanismoa itzultzeko bidea erreztu dezakeela uste du dantzariak, emozioak adierazten laguntzen duelako.

Ikusleek ere gauza berriak eskatzen dituzte, gasteiztarraren iritzirako: "Antzerki klasikoak dituen gauza onak mantendu behar dira, baina erromatarren garaitik horrela aritu dira...". Teknologiak dantza noraino eraman dezakeen azaltzean zalantza agertu du Damianek, "agian garapen



Tokiaren
temperatura

eta
egoeren
arabera
tapiza
ezberdin
dago
eta
mugimendu
guztietan
igartzen
dugu

guztia gelditzea izango litzateke egoiena, hogeita lau ordu baino irauten ez duten moden arazoak eztanda egingo du bestela".

Xumea bada ere, higidura guztietan somatzen da: *Tokiaren temperatura, hezetasuna eta egoeren arabera tapiza desberdin dago eta mugimendu guztietan igartzen dugu; baldin eta eguna nolakoa den, lagundu edo mugatzen gaitu*.

Argiztapena oso zehatza da, zoratu egiten gaitu, dagokigun leku juxtuan ez bagaude, ez zaigu ikusten eta. Damianek, Virginia, Zigorrek eta Cristinak, musika, eszenografia eta argiztapenarekin batera, amets giroa sortzen dute, irreala. Nolanahi ere, ez pentsa lana erokeria hutsa denik, hurbila oso egiten zaio ikusleari eta gustura ikusteko modukoa dela uste dut.



Bacalao Giraldo

• Egunko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest

• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36

Gorbeia Merkatua • Zaldiaren plaza • GASTEIZ



Lan eta lan

Otsailean Basauriko Social Antzokian obra aurkeztu zutenetik lan eta lan aritu dira lau dantzariak; Euskal Herrian eta Estatuan ibili dira ikuskizunik ikuskizun, hurrengo hila-beteetarako emankizunak hitzartuta dituzte eta eskaera gehiago izatea espero dute: *Europar jarduteko aukera izango dugu eta Estatu*

Batuetara iristen ahaleginduko gara, baina kontratazio kontu hauek nahikoa motelak izan ohi dira.

Damian eta bere lankideak ezin kexa daitezke lan ezagatik, baina, oraindik ere, kultur-programatzailei dantza planifikatzea izugarri kostatzen zaiela salatu du gasteiztarrek. Ezjakintasunagatik agian, baina

antzerki gutxi batzuek baizik ez dute itxurazko dantza programazioa egiten; hala eta guztiz ere, garbi dago lan bat ona denean jendeak ihardesten badakiela.

Programatzaileen beste aje bat dantza ekitaldi gehienak maiatzean antolatzea da, Dantzaren hilabetea deitzen den horretan lanez gainezka ibiltzen gara eta batzuetan luzaturiko zenbait proposamenari ezetz esan behar diozu; gero, urte guztian zehar, oro har aukera gutxi izan ohi da.

TESTUAK: **LEIRE LZ. DE ABERASTURI**
ARGAZKIAK: **EDORTA SANZ**



**LANDABURU
AKADEMIA**

KLASE
PARTIKULARRAK

Guatemala, 12. behea. 12 09 50

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 **GASTEIZ**

JATETXEA

233

geu gasteiz



Burua
hautsi
gabe
egindako
rock
and
rolla;
zuzena,
gitarra
ren
soinuz
beteta

Los PADRINOS Rock AND Roll taldea

Los Padrinos Gasteizen jaioetako rock and roll talde berri bat dugu. 97 urtearen hasieran sortu zen arren, esperientzia eza ez duen laukote berri bat da.

The Allnighters, Replicantes edota

A La Fuga ezagunak dituzue? Hona hemen, bada, istorio honen laugarren kapitulua.

Nahiz eta urte eta erdi baino elkarrekin jotzen eman ez duten, Los Padrinos taldea, (Alfonso-Bambino, Juanito-El Capo, Joseba-El abuelo eta Alex-Capone), gai da lokalean landutako abestiez ordubeteko zuzeneko bat eskaintzeko. Inguruko zenbait areto eta tabernatan entzun ahal izan ditugu, baita auzoetako eta motozaleen festeetan ere. Eta orain, kaleratu berria duten maketari esker, gure etxeetan. Zazpi abestik osatzen dute gasteiztar hauen

estreinako lana; rock and roll zaporeko zazpi zurrut. Erritmoa, gitarrak, jaia eta zentsurarik gabeko hitzak. Hauxe dugu Los Padrinos. Honetaz, eta zenbait gauza gehiagoz, Alex-Caponerekin izan ginen berbetan.

Los Padrinos zure hirugarren taldea dela kontuan hartuz, galdetu nahi dizugu ea zerk bultzatzen zaituen rock and roll munduan jarraitzera.

Nire izaera basati eta bihurriak, gogoko dudana bizitzeko irrikak, nire musikaren bidez jendea goza-



Errege
Atea
9

GASTEIZ



22 65 64
GASTEIZ

Zaldiaran Plaza, 10

JANTZI ETA
OPARIAK

Aiztogile (KUTXI), 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



tzen ikustek.

Non utzi dituzu lehengo taldeekin sortu zenituen kantak?

80. urtetik hona egindako kutxa bete abesti daukat. Ehun bat izango dira guztira, eta gehienak ahaztuta. Los Padrinos-en lana, bai hitzak, baita musika ere, berria da erabat. Lehengo kantaren bat edo beste berreskuratzea pentsatuta daukat, baina horretaz talde osoak azaldu beharko du bere iritzia.

Noiz amaitzen da talde baten bizitza?

Musikariek sortzeari uzten diotenean, jakina. Eta hau gertatzen da aurrera jarraitzeko itzaropiderik ez dagoen unetik. Nik ez dut sekula erabaki noiz helduko zitzaizen nire taldeei hiltzeko garaia. Ez dut egundaino talderik saihestu. Dena den, lehengo bi proiektu desagertu egin zaizkit, eta egun beste rock talde batean aritzen naiz. Noiz arte? Auskalo!

Hasieratik hona zure ahoskerak aurre- rapen nabarmenak izan ditu.

Urteekin hobeto abesten, ñabar-tzen, eta asmoak zein sentimenduak aditzera ematen ikasi dut. Urteak dira, txo! Maketa honi dagokionez, zenbait abestitan ahotsa ondo grabatuta dago; beste batzuetan, aldiz, "Revolucion" kantari esaterako, nahasteko denbora eskasa izan genuenez, altuegi geratu zaigu. Dirua eta denbora gehiago beharrezkoak dira grabaketa borobila lortzeko.

Ba al dira hitzak Los Padrinos-en alderik ahulena?

Beharbada bai. Garrantzi handia-go eman nahi izan diogu musikari hitzei baino. Orain arte sailtu gara rock sendoa eta "kañeroa" egiten. Rockariak gara; ez, ordea, poetak. Ez ditugu geure burmuinak lauskitzen letra sakonak idazten. Sexua, errepi-dea, drogak eta burutazioren bat nagusi dira gure kantuetan. Dena den, hausnarketa horiek esaldi baka-rrak izan ohi dira.

Rock and rollaren topikorik topikoe-

nak, hain zuzen.

Bai, eta aldeaz aurretik pentsaturi-koak, gainera. Horixe da taldearen ezaugarri nagusia: burua hautsi gabe eginiko rock and rolla; zuzena, gita-rraren soinuz beteta.

Ba al da Los Padrinos esku hartu duzun taldeen artean rockariena?

Bai, eta zoroena, errepidezaleena, eta alaitsuena ere bai. Talde honetan Stones-en eragina ez da horren naba-ria; bai, aldiz, ZZ Top edota Doctor Feelgood-ena.

Zeharo rockzaleak zareten arren, *Un Poco de Color* abestia reggae-ren tanta batzuek ureztatzen duzue.

Bai gogoko dugu reggae-a. Dena dela, zuk aipatu abestia ez da reggae oso bat; sarreran zenbait akorde bero jotzen badugu ere. Kantaren tituluak berak adierazten duen lez, maketari kolore pittin bat ematen ahalegindu gara.

El Hechizo jendea

Los Padrinos-enga-na gerturatzeko abestirik aprobe-sena dela esan daite-ke...

Bai. Nolanahi ere, nik "Gasolina y Rock and Roll" nahiago dut, ondo grabatuta baitago. Gainera, lelo borobila eta erreza dauka.

Saiatuko al zara gra- bazioaren emaitza eta zunenekoak parekatzen?

Bai. Alde batetik, zuzenekoak basatiagoak dira; eta bestetik, make-tan entzun daitezkeen gitarra ez dira zuzenekoak bezain erasoko-rrak. Bestalde, estudioan arazoak izan genituen bonboarekin. Era labu-rran esanda: taldea askoz hobea da

lehengo
kantaren
bat edo
beste
berreskura-
ratzea
pentsatuta
daukat,
baina
horretaz
talde
osoak
azaldu
beharko
du bere
iritzia



zuzenean estudioan baino, ezbairik gabe; zuzeneko talde bat gara eta. Orain gure asmoa zuzenean graba-tzea da, jendeak ondo baino hobeto garen moduan ezagutu gaitzan.

Betiko rock and rollaren talde gutxi aritzen dela kontuan izanik, baka- rrik zaudetela sentitzen al duzue?

Gaur egun Euskal Herrian kasik inork ez du rock and roll klasikorik jotzen. Bai musikari, bai hitzei dago-kienez, hutsune hori bete beharrean gaude.

Eta udaran, zer?

Udarako "bolo"-ren bat erdietsi dugu. Hori horrela, abuztuaren 29an Frantziako hegoaldean gauzatuko den motozaleen bilgune batean izan-go gara jotzen. Gasteizko jaietan bi

aukera izango duzue Los Padri-nos-ek gozatzeko; Brullerias Plazan bata, eta txosnetan bestea. Beste batzuk errefusatu behar izan ditugu.

Rock and rollaren garaia heldu da; Los Padrinos-en garaia, apika?

Ene aburuz Rock and roll talde berriok momenturik aprobe-sena biziko dugu aurki. Utzigu-zue, bada, zuen rock and rollaren aitabi-txiak izaten! Zain-duko zaituztegu, rockzaleak zareten guztiak, bide onene-tik eramango zai-

tuztetenak gaituzue!


Eta zein da bide hori?

Zuen desioek eta bihotzek erakus-ten dizuetena.

TESTUA: TXABI ARNAL GIL

ARGAZKIA: EDORTA SANZ

J A T E T X E A



Aiztogile (KUTXI), 26 tfnoa: 28 81 47
GASTEIZ

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegiririk zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 25 56 90 GASTEIZ

Oka!
arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 28 18 38

25

gen gasteiz



gaurkoak eta betikoak

rock'n'rolla-aren historia formato berrian



IZENBURUA: RIP VERSIONES.

TALDEA: RIP.

DISKETXEA: OU.

URTEA: 1997.

Arrasateko O diske-
Atxearen eskutik iaz
ailegatu zitzaigun Eus-
kal Herriko pop-rock-
aren adar guztietatik etorritako hamazazpi
taldek RIP laukoteari eskenitako omenal-
dia den lan hau; *Mondra*-koen musikaraino
hurbiltzeko hamazazpi era desberdin;
hamazazpi abesti, RIP-en indarra eta
garrantzia ez ditzagun inoiz ahantz.

Nuevo Catecismo Catolico-k sua pizten
du *Ahogate* abestiarekin; Punk-rock hutsa.
Ez dago RIP gogoratzeko era hobeagorik.
Larrua Truk eta Psychophony taldeek
euren gitarren indar osoa askatzen dute,
Incorruptible eta *Condenadado* ezin elektriko-
ago bihurtuz. Brigada Slam, Brutal Melody
eta Anarko taldeak azeleradorea beharaino
zapaltzeaz arduratzen dira; RIP trash-aren
erara. Aipamen berezia Anestesia-ren zein
Dut-en lanetarako. Lehenengoari, *Policia no*
abestiaren 58 segunduak urragarri bilaka-
tzearren; bigarrenari, *Terrorismo policial*
joko elektriko bihurtzeagatik. Patagonia-k
Mundo muerto heavy-mundura eramaten

IZENBURUA: KALANBREAK.

TALDEA: GOZATEGI.

DISKETXEA: ELKAR.

URTEA: 1998.

Gozategi taldeak beste disko
berri bat aurkeztu du, uda
honetarako. 13 kantaz osaturiko
disko honetan era guztietako
abestiak entzun daitezke: bala-
dak, biribiletak, trikitixak, eta beste errit-
mo batzuk ere bai.

Agian ez ditugu Muxutxue edo *Nor nori*
nork bezalako doinuak aurkituko, baina
seguru asko honetan agerikoak ere gustuko
izango ditu jendeak. *Kalanbreak* izan daiteke
kanturik erakargarriena, diskoren bigarre-

du. El Desvan del Macho-koek,
berriz, *Escoria* errazten eta iluntzen
dute.

Eta bigarren aipamen berezia
Mo Mau taldeari dagokio, zeren haize-
musika tresnen laguntzaz, eta jazz-arekin
jokatuz, *Kaos* pub-giroan murgiltzen baiti-
gute. Ezagutezina. Daisy Cutters, Los
Pichones eta Síndrome del Dreskontrol tal-
deek, irakasleek azaldutakoari zintzoki
jarraikiz, nota on bana lortzen dute azter-
keta honetan; eta ondorioz, rock and roll-a
garaile. Bad F-Line-k arrisku handiko
apustu egiten du *Brigada criminal XXI*.
mendeko gitarren eta teknologiaren soi-
nuetara gerturatuz. Iskanbila-koek, aldiz,
melodiaren alde egiten dute *Revolucion*
ederra grabatuz.

Eta bukatzeko Elkorobarrutia-k *Mondra*
(RIP-en himnoa izan zena) kapelaz abestu-
rik eskaintzen digu. Carlos RIP Agirreurre-
taren (*Mahoma*) ahots behekoak Arrasatetik
Belfastera eramaten gaitu, eta Belfastetik
amaierara. Amaiera atsegina, benetan.

TXABI ARNAL-GIL

na. Dena dela, gainerako-
ak ere erraz entzuten dire-
netakoak ditugu, eta guz-
tiak ere dantzatzeakoak,
batzuk erritmo biziagoan,
erritmo lasaiagoan beste-
ak.

Ezbairik gabe, Trikiti
taldeak modan dauzkagu
eta Gozategi taldea oso gogoko du jendeak,
eta disko berri honetako kantak aurtengo
udan dantzatzeako aukera izango dira. Tal-
dea festetan aritzen da eta egiten duten
musika ere horretarako da, festa giroan
dantzatu eta murgiltzeko.

JON LEUNDA

gureak

Arabako taldeen
azken ordua

Hileko notizia bitxiena **LOS ARLOTES**
talde laudiotarrarengandik jaso
duguna izan da. Ruperto Urkijoren
taldearen azken lana, orain arte Aia-
rako dendetan eskuragai zena, Inter-
neten entzun daiteke oso-osorik
(<http://web.jet.es/Lp>).

Mil A Gritos disketxe gasteiztarak
orain arte beraiekin
lanan bat argitaratu
duten taldeen abes-
tiak jasotzen dituen
errekopilatorioa
kaleratu du. Bertan
BETAGARRI, SALVATE
SI PUEDES eta **SOZIE-**
DAD ALKOHOLIKA



talde arabarren kantuak aurki dai-
tezke, baita kanpoko banden lanak
ere (Habeas Corpus, Ekon, Anarko,
etab). Horietako bi talde, **BETAGARRI**
eta **SOZIEDAD ALKOHOLIKA** hain zuzen
ere, Gasteizko jaietan ariko dira.
Lehena Brulleria festagune berrian
eta bigarrena, berriz, Foru plazan.

THE BRONTES talde gasteiztarra, Esta-
tuko irrati batek antolaturiko Imagi-
narock lehiaketaren
irabazlea, alegia,
Arabako Kanpuse-
ko ikasturte amaie-
ra ospatzeko jaial-
dian aritu zen.
Ekainaren 26an
Kanpusera hurbil-
du zirenek The
Brontesen lehen lana, *First* izenekoak,
ezagutzeko aukera izan zuten.
Beraiekin batera *Subterfuge* disketxe
independietarekin ere kontratuak
sinatu zituzten beste hiru talde aritu
ziren: Mercromina, Undershakers eta
Purr.



**PUBLIZITATERIK MERKEENA
ETA ERAGINKORRENA**

GELU
GASTEIZ

PEDRO ASUA, 2. 3A.
22 21 53

intrale

**MIKEL
DELIKA**

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

AGENDA

herrietako eta
auzoetako
FESTAK

Uztailak 2, 3 eta 4:

Santa Luzia eta Koronazio auzoak.

Uztailak 4 eta 5, San Martin:

Luku, Hermua-Barrundia.

Uztailak 6, San Pedro:

Amezaga, Markinez.

Uztailak 11 eta 12, Kristobal
deuna:San Cristobal auzoa, Baños de Ebro,
Okina, Billodas.Uztailak 12, uztailako biga-
rren igandea:

Zuhatu-Koartango.

Uztailak 17, 18, 19 eta 31:

Adurtza auzoa.

Udaletxeetara deitzea
gomendatzen dugu, data
zehatzak direnentz baiezta-
tzeko.JARDUNALDIAK
Herritarren partehartzea.Larunbat honetan bertan (uztailak 4) Santa
Maria kaleko Landatxo Gizarte Etxeak
Herritarren Partehartzeari Buruzko
Jardunaldiak jasoko ditu. Joxemi Zumalabe
Fundazioak antolatuta. Goizeko 10:00etatik
eguerdiko 14:00ak arte, mahainguruak, tal-
lerrak eta betelakoak antolatu dira.

Informazio gehiagorako (943 27 55 61)

MUSIKA
Tomas San Miguel.Ten diskoaren aurkezpena. Uztailak 3, osti-
rala.

Agurain

Euskal Herriko Gazte
Orkestra.Uztailak 21, asteartea. Egitaraia: Los mares
ocultos A. Lauzurikarena (Jesteinaldi mun-
diala), Kontzertu hirukoitza DO Majorrean
L.V. Beethovenena eta Laugarren Sinfonia
Fa minorrean P.I. Tchaikowskyrena.
Zuzendaria: Juanjo Mena. Besaulkia: 1.900
pzta. Anfiteatroak: 1.000 pzta.

Principal Antzokia (945 16 10 45)

Goza gaitezen Kubaren alde.

Uztailak 26 taldeak Kubaren aldeko festa
antolatu du. Berau ostiral honetan, uztailak
e, egingo da, gauko 22:30etatik aurrera
Gasteizko Gazteetxean. Habanatik etorritako
Jelenge taldea izango da festaren izar
nagusia. Zortzi musikarik osatzen dute
Jelenge eta saltsa eta sona raparekin nahas-
ten dituzte erritmo bero baina freskoak sor-
tuz. Talde honetaz gain beste hainbat eki-
taldi eta ezusteko biziko dira, nola ez,
Kubako mojitoz bustiak denak.

sarrera: 400 pezeta

LEHIAKETAK
Ondarroako Itsas-azoka**narrazio saria.** Batueraz zein bizkaie-
raz, Arrantzako bizibidea, esakerak, arrantzu-
erak eta tresnak, kofradien eraketa eta oro
har, itsasoa eta Ondarroari lotutako gaiak
oinarri hartuta, 10 eta 25 orrialde bitarteko
lanak onartzen dira. 300.000 pezeta sarri-
tan. Lanak hartzeko azken eguna irailaren
15a izango da. Informazio gehiago honako
lekuari:

Lea Artibaiko Amankomunazgoa

Oletako Eskoletxea, Ugarran auzoa

Amoroto. (94 684 26 96)

IBILBIDEAK
Arabako Natur Institutuak.hiru irteera egingo ditu hilabete honetan.
Lehen berehala izango da, hilaren 4an,
larunbata, udako urtaroi dagokion
Gasteizko Mendietan zeharreko ibilbide
gidatua, hain zuzen ere. Bigarrena dato-
rren larunbatean, hilak 11, burutuko da.
Marratzea naturan izenpean, Arabako
fauna eta flora paperean ezartzea du hel-
buru honako honek. Azken urteroko bazki-
deen irteera izango da, hilaren 18an, larun-
bata, egingo dena.

Arabako Natur Institutua

Pedro Asua kalea, 2 - 3. solairua

945 24 66 06

Ibilbidea eskulturaren zehar.

Montehermoso Kulturuneak Gasteizko kale
eta parkeak hornitzen dituzten eskulturak
ezagutzeko ibilbide gidatuak antolatu ditu.
Bi ibilbide dira hain zuzen ere: lehenak
Andra Mari Zinareen plazan du irteera eta
Dato kaleko ibiltarian du helmuga, ordu eta
erdiko txangoa eta gero. Bigarrenak, antze-
rako denboran, Florida, Senda eta Frai
Francisco Vitoria ibilbideak igarotzen ditu.
Orotara, 25 eskultura bisitatu eta ezagutze-
ko aukera eskaintzen dute bi ibilbideok.

Montehermoso Kulturunea

Fraí Zacarias Martínez kalea, 2

945 16 18 30 / 16 18 33 / 16 18 32

UZTAILEKO
gomendapenaIII POP-ROCK
IKASTAROEEN
HAMABOSTALDIA

Zabalik da jada abuzturako
antolatu diren III. Pop-Rock
eta Musika Berrien
Hamabostaldiko ikastaroetan
parte hartzeko izen-emate
epea. Gasteizko Udaleko
Kultura Sailak eratuta, abuz-
tuaren 17a eta 30era bitarte-
an burutuko da eta, nobedade
nagusi bezala, 0 maila ere
eskeintzen dela esan beharra
dago; hau da, musika tresna
bat ikasi nahi eta inoiz erabili
ez dutenentzat egitaratua.
Horrela, hiru maila emango
dira: 0 maila eta hastapenak
(abuztuaren 17tik 21era) eta
maila ertaina (abuztuaren
24tik 28ra).

Izen ematea Goiuri Jauregian
izango da, 2.000 pezetaren
truke, uztailaren 15a baino
lehen.

Goiuri jauregia.

Aihotz plaza, z/g.

945 16 12 70

<http://www.vitoria-gasteiz.org>

EL PARRAL TABERNAREN ESKEINTZA

uztailak 2, osteguna.

Arakajun (folk)

uztailak 7, asteartea.

Txan Handia (magoa)

uztailak 14, asteartea.

Sindrome de Deskontrol
(punk-rock)

uztailak 21, asteartea.

Liquid Crunch Tower
(Floridako taldea)

ekitaldi guztiak arratsaldeko 20:00etatik aurrera

erakusketak

EGOA LIBURUDENDA.

Maiatzaren bukaeran jaso
genuen Jon Landa gaztearen
erakusketaren berri. Uztaila-
ren 15era arte dugu Gasteizen
bizi den artista honen lana
ezagutzeko parada.

VITAL KUTXA. Duela
125 urte Manuel Iradierrek eta
Stanleyk elkarrekin egin zuten
topo. Jazoera gogoratzen duen
erakusketa zabalik dago Foru
plazan. Hainbat dokumentuez
gain, Iñigo de Aranzadi etno-
grafoak utziriko fang tribua-
ren gauzak jasotzen ditu.

**AGIRITEGI HISTORI-
KOA.** *Cuerpo a cuerpo* izen-
pean Frederiz Karikese eta
Claude Fauvillek argazki-era-
kusketa iradokigarria antolatu
dute. Egun atzerrirako isalarik
handiena duten bi argazkilari
belgikarren mostra uztailaren
31ra arte dago zabalik.

EDUARDO DATO.

Alfonso Salas gaztelarraren
eskulturak erakusgai dira
ekainaren 24az geroztik Dato
kaleko izen bereko aretoan.
Besteak beste egurra eta bron-
tzea darabiltza Salasek Estatu-
ko hainbat herrirentzat egini-
ko lanetan.

27

guz gasteiz

piti pata

txikiak

TESTUAK: ITZIAR URIARTE ARGAZKIAK: EDORTA SANZ

JAI OBERRIAK

Buaaa, buaaa!

Haur txikiek duten gutxi edo gaizki jateko joera da ama guztiengan sortzen den buruhauste handi eta gogorre-netako bat. Badakizue, egune-ro lelo berdina ahotik ateratzen: "hau aitarentzat, hau amonarentzat, ireki ahoa hegazkina datorrela", etab... Nolanahi ere egon badaude salbuespenak, eta hauen arte-an Irene dugu: Irene arratsalde erdian edo gosearen premiak harrapatzen duenean, negarrez hasten da gelditu barik bapo sentitu arte.



URTE BATZUK GEROAGO, 2-5 urte

Marielle,
Thoor maitea.

Marielentzat Thoor lagun berezia da. Horrela esanda, badirudi Thoor txakur baten izena dela. Ba... oraingoan, orde, izen hau bere panpin maitagarrienari dagokio.

Thoorrek alde egiten duenean, Marielek marrazki bizidunak ikusi ohi ditu. Gustuko dituenen artean adibide garbia "Errege Lehoia" dugu, sarri askotan ikusi baitu. Ez hirutan, lautan edota bostetan... Zazpi aldiz, baizik! Hau bai marka!!



Ipuina:

UMEAK HANDIAGO
IZAN NAHI ZUEN

Behin batean mutil bat oso txikia zen, eta oso handia izan nahi zuen. Amak esan zion horrelakoa zela eta ezin izango zela askoz gehiago hazi. Mutila etxetik joan eta aztiaren etxera abiatu zen. Hara heltzean zera esan zion aztiari: "handiagoa eta altuagoa izan nahi dut!". Aztiak erantzun zion: "Asko jan behar duzu eta amak esaten dizun guztia egin beharko duzu". Mutilak kasu egin zion eta handitu egin zen. Hortik aurrera ez zen berriro kexatu.

Maria, 7 urte.
Barrutia Ikastola.



HAUNDITZEN, 6-12 urte

ba al zenekien



Pinguino mota asko daudela eta txikiak, PINGUINO TXIKIAK (Pygoscelis papua), 35 zentimetro baino gehiago ez duela neurtzen? Australian eta Zelanda Berrian bizi da, Ozeania beraz. Lepoa, bizkaraldea eta hegoak beltzak ditu eta bular-sabela zuria. (ikusi



arrainak jaten dituzte

marrazkiak).

Pinguinorik handiena, aldiz, PINGUINO HANDIA da. Metro bat baino gehiago neur dezake eta arrainak jaten ditu batez ere. Pinguino handia (Aptenodytes forsteri) Hegoburuan bizi da, baina itsasoan ematen ditu hainbat hilabete izotzetan igaro behar duenerako gizentzen. Moko luzea eta mehea

Ozeania: bost kontinentetako bat (Europa, Asia, Afrika, Amerika eta Ozeania) gizentzen: loditzen, tototzen, mardultzen

estaila



Jaiei begira

Hodeik eta Arantzak
Ikasbideako joan etorriak
atzean utzi, eta denboraldi
dibertigarri eta lasaigarrietan
pentsatzen dihardute.
Ailegatu berria den uda
honetan honako hauek dira
euren burutazioak: igerile-
kua, lagunak... Hara, zer
nolako bizitza! Baina itxaro-
ten ari diren unerik desiratu-
na Gasteizko festak dira. Bai
badakizue, "Celedón,
Celedón....". Gainera gure
hiriko Betagarri taldeak joko



iosu perez



aroa

egoi sanz



ainhoa



badu, ezin hobe eta gustura
igaroko dituzte hain alaitsuak
diren udako gau hauek.



jon p.

Datorren hilabeteen zure marraz-
kia argitaratua ikusi nahi baduzu
bidaligu zu honako helbidera:

Geu Gasteiz aldizkaria
Pedro ASua kalea 2. ja.

du, bizkaraldea beltza eta sabelal-
dea zuria.

PINGUINO
MOTODUNA
bestaldetik 60
cm inguru ne-
urtzera hel-
daiteke eta
buruaren alde
banan luma
horiak ditu.



lun izortuetan bizi dira

Hau ere, pinguino handia bezala,
Hegoburuko irleetan bizi da.

Pinguino guztiak hegaztiak dira,
nahiz eta hegan egiten ez daki-
ten (batez ere oso pisutsuak
direlako). Igerian oso onak
dira, zangoak eta hegoak
horretarako oso egokiak
dituzte eta. Horregatik korri-
ka egiten dutenean barre
eragiten digute.



igerian oso harrizak dira,
elurretan berriz traketsak

sabelaldea: gorputzeko aurrealdea, sabela

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

DIRUA GALGARRI

Imanol Barrutia / irakaslea

konomiarekin zerikusirik duten berriek gero eta garrantzi gehiago dute albiste guztien artean. Informazio mota hau poliki-poliki nagusitzen ari da bai irrati bai telebistako eguneroko ohiko saioretan. Zer esanik ez berri hori handitasuna eta handikeriarekin lotuta dagoenean eta azken bolada honetan horietako batek zur eta lur utzi gaituela ziur naiz: Alicia izeneko emakume bati "loteria" tokatu zaio Gabonak izan ez arren. Egun batetik bestera ia-ia 137.000 milioi pezeta poltsikoratu ditu empresa bateko bere partaidetza saldu ondoren.

Ezbairik gabe haur ipuinetako ezagunagoa den beste Aliziak baino irudimen gehiago beharko du jakiteko nola bideratu altxor hori kaltegarri gerta ez dakion. Baina hau hasta-pena besterik ez da izan eta hemendik aurrera hainbat zurrumurru eta uste zabalduko dira zer egingo duen eta egin daitekeen diru kopuru erraldoi horrekin. Istorio honetako pertsonaia nagusia kolore guztietako prentsako (hori, larrosa eta beltz) izarra da iadanik.



Honek guztiak frogatzen du diru kontuekin hainbat literatura egin daitekeela, baina, eta alderantziz? Literatura diruarekin? Baita ere. Eta honen lekuko, artikulu honen izenburuaren modura, hau dugu euskal literaturgintzan liburu klasiko baten izenburua. Ez zaharra delako, baina bai bere generoan, eleberri beltzean, lehenengoetarikoa.

Arestian aipatu dudan berri liluragarri horrekin batera JAKIN aldizkari paregabeak, -hau bai dela benetako altxorra!-, Gotzon Garateren idazlan interesgarri bat eskaini digu Euskal polizia eleberrien inguruan eta bertan, beste idazleen artean, aipamen berezi bat egiten dio Mariano Izeta baztango erloju-

gile eta idazle haundiari. Bera dugu "Dirua galgarri" nobelaren aita. 1962an lehen aldiz argitaratua eta gaur egun agortua dagoena (posible litzateke berriro argitaratzea?). Bere mamia, irakur-

leak asmatuko zuenez, diruak dakarren galbidea eta hondamendia. Ene, haragizko eta hezurrezko Aliziak irakurriko balu!

q



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tnoa. 14 88 95

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA
Aiztogile (KUTXI) kalean

Argazki - Estudio
Erramun

Heraclio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tnoa: 13 71 02 Tnoa: 26 19 91
01006 01004

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguai kalea 17
☎ 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 ETA 3
☎ 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 ETA 3
☎ 26 78 97



JOSEBA
HARATEGIA

Paraguai merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 25 66 89
GASTEIZ




**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

Floridako altxorra !


35

adaka
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ



NOUVELLE VAGUE...



FILMERIK-FILME, KONTU-KONTARI II

Elbira Elejalde / ikus-entzunezkoetan aditua

uela gutxi, IKAK antolatu Kultur Astean ikusi ahal izan genituen euskaraz egin berri diren hiru film labur: Ana-basa Eremua, 4. galeriatik eta Txotx. Filmak ikusi ondoren, lehenengoaren zuzendariak filmaketaren gorabehera eta, oro har, film laburrei buruz hitz egin zuen. Hone-lako filmek duten zabalkunde aukerak ikusita, argi zeukan egileak hobby bat besterik ez zela berea, hobby garestia, hori bai, eta halere, hamaika buruhauste ematen ziona. Oso zaila suertatzen da film labur bat egiteak balio duen dirutza berreskuratzea, ez baitago jendeaurrean botatzeko apenas aukerarik eta jaialdi gehienetan ez dute diru saririk eskaintzen; are zailagoa da, euskaraz eginda badago. Txotx-ek, kasu, azpituak bazituen ere, zailtasunak izan omen ditu estatuko hainbat jaialditan parte hartzeko eta zenbait kasutan at geratu da. Nolanahi ere, sariak jaso ditu, Euskal Filmotekarena, esaterako, eta gainera ez da Euskal Herrian sariak jaso dituen film bakarra.

Pasa den hilabetea, Tinieblas González laudiotarrak zuzendutako Por un infante difunto film laburra sari bat irabazi zuen Cannesen. Gasteizen bizi den zinegile honetaz gain, beste gasteiztar batzuek ere hartu zuten esku filmaketan. Era berean, hainbat arabar aurki ditza-kegu 100 maneras de hacer el pollo al chilindrón film laburrean; honek ere sariak jaso ditu estatuan zehar: Aguilar de Campón, Logroño-ko Actualen, Huelvako Iberoamericanoan, Medina del Campon, Euskal Zinemako Galan. Egilea laudiotarra dugu berriro ere, Kepa Sojo, eta aurrekoa bezala buru-belarri ibili da bere proiektua atera nahian (Tiniri amak herentzia aurreratu zion, Kepak txosna eta guzti jarri zuen herriko jailetan). Biei ondo atera zaie beren lehenengo saiakera hau; lehena, Frantzia irabazitako bi milioiekin beste film labur bat egiten saiatuko omen baita, eta bestea, entzun dudanez, proiektu batean murgilduta baitabil.

Baina film laburra ez dituzte zuzendariak bakarrik egiten, pertsona ugari dago honen inguruan ezinbestekoa den taldea osatzen. Hauek ere zinemagintzako lehenengo pausoak ematen dihardute eta hemen, Euskal Herrian,

asko eta asko dira arlo desberdinetan horretan ahalegintzen ari direnak. Dena dela, arazoak sortzen dira denbora pasa ahala; izan ere, hainbat film laburretan "doan" lan egin eta gero, hurrengo urratsa emateko beharra sentitzen da. Eta hurrengo pauso hori ez dago hemen ematerik. Ahal edota nahi dutenek Madrilera jotzen dute, mundu honetan lekutxo bat izateko asmotan; horretan ari direla, azkenaldi honetan hain ugari diren telesailetan sartzen afantzen dira. Honetan diraute batzuek zinema munduko proiektuen batean sartzeko zain dauden bitartean, Hollywooden tabernari moduan diharduten aktoreek bezalaxe. Baina Madril ez da Hollywood. Nahiz eta azken urteotan film askotxo eta arrakastatsu samarrak egin diren, industria mailan ez dirudi ezer aldatu denik, benetako azpiegitura hedatua ez baitago. Hala eta guztiz ere, zerbait egon badago eta hemen, berriz, ezer gutxi.

Iaz, Londresen nengoela, Sight and Sound aldizkarian Julio Medemi egindako elkarrizketa bat irakurri nuen. Bertan, makina bat gauzaren artean, Euskal Herriko zinemagintzaren gaineko galdera egin zioten. Berak zioenez, ez dago euskal industriarik, euskal herritarrek egindako zinema baizik; zuzendari ezagunak ezezik, tekniko ugari ere badaudela azpimarratzen zuen. Bere iritzia arabe-ra, garai batean gazte askok gauzatu ohi zituzten film laburra eta estatuan baino ugariagoak ziren, ETBren eta Jaurilaritzaren laguntzari esker. Baina, zerbait berezia sortzen hasi zenean, bat-batean gobernuak dirulaguntzak emateari utzi eta guztiak Madrilera edo beste edonora joan ziren.

Honek guztiak pentsarazi egin behar du, hainbeste lagunena lana, proiektuak, asmoak... bideratzeko eta gure kulturaren hutsune hori betetzeko. Aurki, eskuragarriagoa den bideoz eginiko lanak ikusteko parada izango dugu, gurean egingo den jaialdian. Etopa berri honetan, betiko bideo musikalak eta fikziozko lanez gain, ikus-entzunean ireki berri diren bideetan eginiko gauzez gozatzeko aukera izango dugu.

Goazen, bada, irudien mundura jauzi egitera!!!

q/



axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



gure gurea

GURE HITZETAKO SEXISMOA

Edurne Begiristain / kazetaria

makumeen kontrako diskriminazioa eguneroko errealitatea da oraindik ere gure artean. Feministen borrokei esker emakumeek eskuratu ditugun lorpenak ez dira makalak, baina ez dira nahikoak inondik ere, menpekotasunak eta bazterketak bizirik diraute eta. Legearen aurrean berdinak omen gara, guztiok berdintasun egoeran lan egiteko eskubidea dugu; praktikan, oster, errealitatea oso bestelakoa da.

Aitzitik, badirudi zientzia eta filosofiak gero eta gehiago azpimarratzen dutela bi sexuak baliokideak direla. Baina hori egia bada ere, ideologia eta jarrera sexistak eguneroko ogi bilakatu zaizkigu, eta gure gizartean zeharo errotu eta finkatu. Izan ere, ideia sexista hauetaz jariatzen diren ondorioak hainbat esparrutan islatzen dira, besteak beste, kalitate eta hizkuntzan. Eta horiek izango dira, hain zuzen ere, ondorengo lerroetan azalduko ditudan sexismo guneak.

Lehenik eta behin kalitateekin hasiko naiz. Nork ez du inoiz ezaugarri “maskulino” eta “femeninoez” hitz egin? Seguraski denok esan dugu noizbait emakume batek kalitate “maskulinoak” dituela. Baina zer da eta nondik datorkigu pentsaera hori? Nire uste apalean, betidanik indarra, ausardia eta oldarkortasuna gizonezkoei egotzi dizkiegun gaitasunak izan dira. Emakumezkoen ezaugarriak, berriz, jario-tasuna, malgutasuna eta ahulezia izan dira. Horregatik, emakume batek bere ustezko ezaugarriak baino gehiago, beste sexuarenak baditu, “chicazo” eta antzekoak esaten zaizkio.

Alderantziz ere gertatzen da; hots, gizonezkoei “maritxu” deitzen zaiela emakumeen “gaitasunak” bereganatzen dituztenean. Halere, inork gutxik galdetzen dio bere buruari zergatik deitu behar ote die-

gun “maskulino” edo “femenino” aztura horiei. Antza denez, arbasoek utzitako ondare moduan dugun ideologia da gurea, mendeetan kulturak, politikak, erlijioak eta arteak berak ere bideratu eta ekarri digun ondare penagarria.

Bestaldetik, hizkuntzaren eremuan sexismoak duen presentzia zein handia den ez gara ohartzen. Jakin badakigu, erdarak genero maskulinoarentzat “o/os” genero marka darabilela bi sexuez osatutako talde batetaz diharduenean. Era horretan, emakume talde batean gizonezko bat baizik egotea ez da behar “los” delakoa erabiltzeko. Alde horretatik, euskarak neutraltasunaren bereizgarria omen dauka. Hitanoa erabili ezean, euskarak sexuen arteko bereizketarik ez duela egiten pentsatzen dugu. Tamalez, badira izaera sexistak erakusten duten adierazpenak. Gehien erabilitakoen artean honakoak nabarmenduko nituzke: sarritan entzun eta irakurri ohi ditugu “seme” (“haur” adierazteko) edo “anaitasun” (“senidetan” ordez). Azken hitz honek bestelako esapideak ere sortu ditu, “anaien arteko gerla” edo “denok anaiak gara”, kasu. Antzinako apaizek, ordea, senide edo “haurride” zerabiltzaten haien predikua hastean. Orain, aldiz, genero maskulinoak eremu guztia hartu eta neutro diren hitzak erabat ahaztu ditu. Horrela, euskara, hizkuntza ez-matxista izatetik, emakumeekiko bazterketa tresna bilakatzen ari zaigu denbora aurrera joan ahala.

Aipatu kasuok nahiko ondo erakusten dute oraindino gauza anitz egiteke dagoela sexismoarekin bukatzeko. Hortaz, hasteko ondo legoke gure hizkuntzan eta hizkeran gehiago erreparatzea oharkabe egiten ditugun sexistakadak betirako baztertu ahal izateko.

✓

IRVSTA
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

TXVSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea GASTEIZ



ONDOKOETAN BADAGO EUSKARAZ DAKIEN LANGILERIK

UDAL-BULEGOAK ZERBITZUA

HELBIDEA

TFNOA.

Udaletxea

Argibideak eta Erregistroa	Espainia plaza, 1	16 11 88
Emakumeentzako Zerbitzua	Espainia plaza, 1	16 13 45
Errolda	Espainia plaza, 1	16 11 06
Euskara Zerbitzua	Espainia plaza, 1	16 15 22
Funtzio Publikoa	Espainia plaza, 1	16 11 41
Gazteen Argibide Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 30
Idazkaritza	Espainia plaza, 1	16 13 20
Prentsa Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 37
Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1	16 13 08

Udala

(Dato kalea)

Borondatezko Diru Bilketa	Eduardo Dato kalea, 11	16 16 68
Zergen Gestioa	Eduardo Dato kalea, 11	16 11 33

Udala

(San Prudentzio kalea)

Gizartegiuntza	San Prudentzio kalea, 30	16 13 44
Hiri Hobekuntza	San Prudentzio kalea, 30	16 13 01
Ingurugiroa	San Prudentzio kalea, 30	16 11 20

Udal artxiboa

Argibideak	Unibertsitateko Ibilbidea, 1	16 14 99
------------	------------------------------	----------

Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia

Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 88
------------	-------------------	----------

Kultura

Argibideak	Goiuri Jauregia (Villa Suso)	16 12 70
------------	------------------------------	----------

Hezkuntza

Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
------------	---------------------	----------

Ekonomi Sustapena

Frai Zacarias kalea	16 12 11
	16 13 48

Gizarte Etxeak

Ariznabarra	Ariznabarra kalea, 19	13 36 91
Hegoalde	Alberto Schommer kalea, z/g	16 18 80
Iparralde	Zuberoa plaza, z/g	16 17 60
Judimendi	Urriaren Hamabiaren kalea, z/g	16 17 40
Lakua	Etxanobetarren zidorra, z/g	17 17 81
Landatxo	Santa Maria kalea, 4	16 16 82

Europa gizarte-etxea

Argibideak	Gasteiz hiribidea, 85	16 12 31
Biltzar eta Turismo Bulegoa	Gasteiz hiribidea, 85	16 12 61
Kontzientzia Eragozpena	Gasteiz hiribidea, 85	16 36 91



Arriaga

Megadenda



Musika

eta

Liburuak

*Arriaga denda berrian
musika eta liburuak
soilki aurkituko duzu.*

*Zuk bilatzen duzun
guztia 800 M²-etan.*



Arriaga

Megadenda

S. Prudentzio kalea, 7